Berezia
txintxarri
1140. zenbakia 2013-12-23 Lasarte-Oria txintxarri.info

Iritsi dira Gabonak

Zorionak eta Urte berri on!

ASEGURUAK Ges
Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...

Pablo Mutiozabal kalea 2 • Tel.: 943 365899 Faxa943 368575 • cristina_arteaga@ges.es • LASARTE-ORIA

Aurkibidea

4-5 Albisteak
6-7 Santo Tomas eguna
8-9 Olentzero eta Mari Domingiri Ongi Etorria
10-11 Gabonetan adin guztientzako ekintzak
12-14 Rosario Galan, Gerra eta erbestearen lekuko
15-17 Amaia Andres, Atletismoari lotutako bizitza
18 Txema Indias, Toledo K.E.n jardun den herritarra
19 Aizea Morales, Minbizia ikertzen
20-21 Idoia Cuesta, Artisautza bangoardia bihurtuta
22 Elkartasun ekintzak
24 Gabonetako apaingarriak beharrezkoak dira?
25 Nafarroako ikastolen alde Errigora
26 TXINTXARRI-ren Gabonetako zozketa berezia
28-29 Agenda
30 Zorion agurrak

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea

LASARTE-ORIA

Laguntzailea

GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:
Tiakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20402557
Legezko gordailua:
SS513/93
ISSN: 1134-0053
Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.
Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri
Erredakzioa:
Majdee Azurmendi, Neresa Elizagiri, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info
Publizitatea eta administrazioa:
Asiartza Artola
publizitatea@tiakun.com
administrazioa@tiakun.com
Laguntzaileak:
Unai Muñoz, Gorka Lasa, Ane Labaka, Maiku Arruti, Aner Odriozola, Jone M. Hernandez, Oihana Salazar, Pako Arpidarte, Edu Galardi
Informatikoa:
Xabier Amadoz

AEK

Material berrerabiliarekin eskulanak

Muntteri-AEK euskaltegian eskulan tailerra egin zuten aurreko astean Olga Balnco herritarrarekin. Material birziklatuak erabiliz papera besteak beste, lepoko eta belarritako politak egin zituzten ikasleek.

Irakasleek ere parte hartu zuten. Ohiko klaseetatik atera eta mintzapraktika egiteko ekimena izan zen eta gustura hartu zuten.

IKASTAROA

Jostungintzan trebatzeko aukera

Urte berriarekin batera hainbat ekintza egiteko helburua jarri ohi da, kiroldegira joan, hizkuntzak ikasi... Zergatik ez jostungintzan trebatu? Ttakun kultur elkarteak azken urteetan, antolatzen duen euskal jantzi tradizional ikastaroa oinarri hartuta, "Titare" jostungitza taldea sortuko du ohi bezala Jone Artola jostunaren gidaritzapean.

Ttakuneko arduradunek azaldu dutenez, euskaraz harremanak sustatzeaz gain, taldearen helburua herriko elkarte edo taldeek jantzigintza alorrean izan ditzaketen beharrak asetzea izango litzateke, hala nola, Inauteriak edo Santa Ana Parodiarako jantziak egin edo konpontzea.

Talde honek urtarriletik aurrera, ostegunetan 15:00etatik 17:00etara Emakumeen Zentroan egingo du lan. Herritarrak honetan parte hartzera gonbidatzen ditu kultur elkarteak. "Titare"-ko kide izateko, Ttakuneko bulegoan edo 943 371 448 zenbakian izena eman beharko da aurrez, urtarrilean lehenengo saioa 9an izango da.

UDALA

Ordenantzek helegite bat izan dute

Ostirala goizean ez ohiko batzarra izan da Udalean. Lehenik, euskara batzordeko bi puntu onartu ziren, ordenatzaren 15. puntuaren aldaketa eta udalak 2013-2017 urteetan aurrera emango duen euskara plana, "Euskararen bidegorria".

Baina kontuhartzaileak azaldu legez, administrazio kontuengatik, beste gai bat ere jorratu behar izan da, ordenantzei egindako helegitea. Partikular batek terraza itxien tasa %20a jaistea proposatu zuen.

Helegitea ez zen aurrera atera. Ordenantzako puntua aldatzearen alde agertu zen EAJ, Bildu eta LOHP aurka agertu dira eta PSE-EE, PP eta Marisa Zubiri ez adskribatua abstenitu egin ziren.

Euskarako ordenantzako aldaketari dagokionez, bi ehuneko hartzen ziren kontuan laguntzak ematerakoan batetik %40a eta bestetik %75. Gaurko onarpenaren ostean, %85a izango da.

Hau ordenantzaren eta dirulaguntzen banaketaren araudiaren aldaketan pauso bat besterik ez dela argitu du Euskara Batzordeko buruak, Boris Nogalesek eta hurrengo urteko dirulaguntzen partida "ia %50" igoko dela aipatu du.

MUSIKA

Musika Eskolako ikasle hasi-berriak kultur-etxean eta Nogales mezzo-soprano eta Garcia organo-jolea Brigitarretan.

Gabon doinuak herrian

Musika eskola, Alboka Abesbatza eta Musika topaketak izan dira

Eguberri garaian gabon kantak. Urteko azken egunetan urte osoan baztertuta izaten ditugun errepertorioko abestiak entzuten dira bazter guztietan. Eta Lasarte-Oria ez da salbuespena izan. Musika Eskola, Alboka eta Musika Topaketen proposamena izan ditugu egunotan.

TXINTXARRI

Gabon doinuak eta musikak leku garrantzitsua izan du asteburu honetan Lasarte-Orian. Udal Musika eskolako lagunek, Marife Nogales mezzo-sopranoa eta Ana B. Garcia organistak eta Alboka Abesbatzak emanaldiak eskaini zituzten.

Udal Musika eskola

Ostegunean, Udal Musika eskolako lagunek eman zioten hasiera asteburu musikalari.

Manuel Lekuona kulturetxean eskaini zuten emanaldian gabon kantak, doinu ezagunak eta musikari handien lanak entzuteko aukera izan zen hainbat instrumentu eta ikasleen ahotsean.

Amaieran guztiek batera Gabonetako popurri bat eskaini zuten eta ikusleek abesteko aukera ere izan zuten.

Kalitate handia

Ostiralean, berriz, Danok Kide elkartean antolatzen dituen Musika Topaketen lehen saioa izan zen.

Kontzertu honetan, Marife Nogales mezzo-soprano eta Ana B. Garcia organistak kalitate handiko emanaldia eskaini zuten 1915eko organuari doinu indartsuak ateraz.

Pergolesi eta Haëndelen lanak eskaini zituzten nagusiki. Ama Brigitarren komentuko organoaren doinuak eta mezzo-sopranoaren ahotsak komentua bete zuten.

Kontzertu amaieran Gabon kantez gozatzeko aukera ere izan zuten Ama Brigitarren komentura hurbildu zirenek.

Alboka Abesbatza

Bestalde, atzo goizean, gabon kantak izan ziren nagusi Alboka Abesbatzak emandako kontzertuan.

Bibolin eta pianoaren laguntzaz, nazioarteko hainbat doinu izan ziren kontzertuaren lehen zatian entzun ahal izan zirenak, hala nola, Gabon gaua.

Bigarrenean, berriz, euskal gabon kantak aurkeztu zituzten guztien gozamenerako. Horien artean azpimarragarria, emakumeek abestutako *Hauxo muxu gorri bat* doinua, A. Mercero herritarrarena.

Albokak Alba Carretero eta Ane Galarza bibolin-joleen laguntza izan zuen.

Jendetza ibili zen aurrera eta atzera karpa deigarri gorrian sartu-irtenak eginez.

Kultura ezberdinetako *Banaiga Band*-ek girotu zuen azoka.

Aniztasuna saretzen

Azoka, musika eta kirola izan dira igandean

Aniztasun Astean murgildu zen asteburuan Lasarte-Oria. Larunbatean Santo Tomas jaialdia eta igandean Sendakinen azoka, Banaiz Bagara elkartearen musika eta Ampa Sasoeta-Zumaburu Guraso Elkartearen eskutik kirola izan genituen. Anitzen Sarean parte-hartu duten herriko elkarteek esperientziak elkarbanatu zituzten arratsaldeko mahai-inguruan.

Okendo plazan jarri den karparen barnean artisauen, Aterpeako merkatarien eta kultur ezberdinetako elikagaien postuak izan ziren Aniztasun Astearen haitan egingo den azokan. Guztira jarri ziren 24 postu ezberdinetan loreak, zapatak, mertzeria, eztia, gazta, txokolatea, taloak, nikaraguako elikagaiak, bitxiak eta beste hamaika produktu erosteko aukera izan zuten herritarrek.

Merkatariek esandakoaren arabera, igande goizeko lehen orduetan jendeak azoka behatu zuen eguerditik aurrera gauzak erosten hasteko. Egunaren amaieran balantze positiboa egiten zuten oro har.

Azoka girotzen Banaiz Bagara elkarteko Banaiga Band aritu zen. Bitxia eta era berean polita izan zen tiletar bat, alemaniar bat, erumaniar bat eta senegaldar bat elkarrekin euskaraz abesten entzutea. Aita Semeak, Ikusi Mendizaleak, Ilargia... euskal kantu ezagunez gain, erumanieraz, alemanieraz eta ingelesez ere kantatu zuten.

Arratsaldean berriz, herriko elkarte ezberdinek Anitzen Sarea ekimenean bizitako esperientziak azaldu zizkieten herritarrei.

Azokako argazkiak *txintxarri.info* atarian dituzue ikusgai.

Merkatariek eguerditik aurrera saldu zuten gehien.

Sasoeta-Zumaburu Guraso Elkarteak antolatuta, boleibol eta futbol partidak egin ziren. Arg: Txema Vallés.

Herriko elkarteekin aniztasunaren inguruko mahai-ingurua osatu zuten.

Herritarrek gustura hartu zituen gaztaina erre berriak.

Martina 180kg-ko txerria eta bere txerrikumeak izan ziren ikusmin gehien sortu zutenak.

Taloak egiten aritu ziren jo eta su hainbat solaskide.

Giro beroa Santo Tomas jaian

Telleri baserriko Martina txerriak sortu du ikusmina

Tenperatura freskoa eduki arren, jende ugari plazaratu zen baserritar jantzia soinean zuela herriko giroa berotzeko. Uztaro nekazaritza kooperatibak, Lasarte-BHIko ikasleek, Landaberriko DBHkoak, Alboka Abesbatzak, Lasarte-Oriako Equo-k, Santa Teresa eskolako ikasleek eta Ttakun Kultur Elkarteak jarri dituzte postuak Okendon. Urtero bezala, taloak eta txistorrak izan dute arrakasta gehien.

Aratsaldea hotz samar hasi arren, orduek aurrera egin ahala Okendo Plazako giroa berotzen joan zen. Talogileak serio demonio lanean ari ziren bitartean, Martina txerriaren etomerak aztoratu zituen herriko txikitxoak. Telleri baserritik zuzenean Okendora jaitsi zuten 180 kiloko pisua duen Martina txerri emea, sei txerrikume alboan zituela.

Ikusmin handia sortu zuen ez bakarrik haurren artean, gurasoak ere ukondoekin lekua eginez zebiltzan mugikor edota argazki-kamerekin Martina dotoreari argazkiak egin asmoz.

Haurren erromerian parte-hartzea handia izan zen eta euskal dantza tradizionalak ikasteko aukera izan zuten hauek, lehen pausuak helduekin ematera animatuta.

Xumela abesbatzak Euskal Herriko abesti ezagunak kantatu zituen, Gabonetakoekin nahastuta.

Jarraian bertsolarien txanda izan zen, Ane Labakak berehala galdetu zion Patxi Etxeberriari baserritar jantzia non zuen. Honek erantzun zuen aspaldi bizi zela bera kalean eta gaur baserritar jantzia janzten duten askok ez dakitela zer ote den baserriko bizitza.

Ikusleen irribarreak eragin zituen bertsoaldiak eta hauek paso eman zioten Amaluz trikiti eta pandero eskolako gazteen erromeriari ilunabarra doinu alaiez girotzeko.

Egunari amaiera emateko, Dabid Egizabal eta Maider Oiartzabalen eskutik plazadantza eta munduko dantzak ikasteko aukera izan zen.

Txistorra eta taloa

Talogileak jo eta su aritu ziren lanean gelditu gabe. 35 kilo irin eta 27 kilo txistorra ez dira nahikoa izan herritarren sabelak betetzeko. Urtean behin jaten dute gehienek taloa eta aurten ere ez diote urteroko zitari hutsik egin.

Txikien erromeriak txiki eta helduak jarri zituen dantzan.

Arratsaldeko azken ordurako Okendo jendez lepo zegoen Santo Tomas eguna ospatzeko gogoz.

Txikiek taloak nola egin ikasi ahal izan zuten.

Ane Labakak Patxi Etxeberriari baserritar jantzia non zuen galdetu zion.

Bidean dira Olentzero, Xixuko eta Mari Domingi

Sorpresa ugari izango da bihar arratsaldean Olentzeroren harrera jaialdian

Haur guztiak irrikitan daude dagoeneko. Bihar gauean guztiok lo gaudenean Olentzero etxez etxe milaka opari banatuko ditu Lasarte-Oria eta Euskal Herri osoan. Baina aurretik, arratsaldean, gure herrira bisita azkarraga egingo du ikazkin famatuak. Mendition jaitsi eta Loidi-Barrengo pilotalekuan bere lagun diren Mari Domingi, Xixuko ahatea eta Porrotx pailazo bihurriarekin bat egingo du. Kalejira erraldoiean Okendo plazara hurbilduko da. Eusteko ez betetako harrera emanaldiaren ostean, Olentzerok eta Xixukok herriko haurren ilusioak jasoko dituzte eskutitz ixuran.

Mari Domingi, Xixuko, Porrotx eta ehundaka haur izango dira berriro ere Olentzerori harrera beroa egiteko.

Eguberri eguna ate joka dugu. Bihar Gabon-gau eguna dugu eta etxeko txiki eta hain txikiak ez direnentzat, gozamenerako pertsonaia berezi bat sartuko da gure etxeetan, Olentzero eta opariz ezio ikatzez beteko ditu etxeetako zuhaitz azpiak. Beraz txintxoak izan bi egun hauetan.

Baina bihar lotara eta afaltzera joan aurretik herriko txikiek Olentzero ikusteko aukera izango dute Tiakun K.E. antolatutako Harrera jaialdiari esker.

Arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara Olentzero Lasarte-Orian izango da eta haurren eskutitz eta muxuak jasoko ditu Xixuko ahatea, Porrotx eta Mari Domingiren laguntzaz.

Desfilea

Lehenik, 17:00ak aldera, kalejira erraldoia izango da Loidi-Barreneko pilotalekutik Okendo plazara.

Amalurreko Trikitilari eta Dinbi Banba batukada eta Jalguneko kideen erritmora, Olentzerok bere lagunekin ibilbidean dauden herriko haurrak agurtuko ditu.

Kuadrillategi, Gazte Kluba Amaraun ludoteka eta ikastetxeetako gazteek parte hartuko dute kalejiran, nahi duten herritar guztiekin batera.

Sorpresaz betetetako kalejira izango da.

Pertsonaia mitologikoak

Amaraun ludotekako haurrek kriseiluak eramango dituzte eta gainera, gabon kantuak eskainiko dituzte ibilbidean zehar.

Hauetaz gain, kalejiran hainbat pertsonaia mitologiko ere izango da. Kontuz ez zaitezte haien bidean jarri!

Gazte Klubeko gazteek, sorginez eta galtza gorriz argizuziekin argituko dute bidea. Akuilu-makuiludun sorginak eta Tartalo eta basandre belduryarriak ere ikusteko aukera izango da.

Hau guztiaz gain, Kuadrillategiko lagunek Dinbi Banda eta Jalguneko kideen erritmora dantzatuko dute ibilbide osoan zehar.

Kalejirak ordu erdi bat iraungo du eta Okendo plazara iristerako haurrez beteta egotea espero du Olentzerok.

Xixuko eskoletan

Baina ez da soilik haurrez lepo egongo, hauek Xixukori emandako marrazkiak ere Okendo plaza apaintzen izango baitira.

Aurreko zenbakian jaso genuen bezala, Xixuko ahatea abenduaren 12 eta 13an, herriko ikastetxeetan izan zen bisitan.

Xixukok Lasarte-Oriako haurrei Olentzero berak haien izenean prestatutako eskutitza banatu zien eta hauek trukean ahateari marrazki koloretsu eta politak eman zizkioten Olentzerorentzat.

Emanaldia

Giro eta musika ez da faltako plazan, Gabon kantak, emanaldia, erromeria... izango dira Olentzerori harrera beroa egiteko.

Gainera, Alboka abesbatzako kideek ere kantatuko dute Okendon Olentzeroren ongi etorrian.

Okendora iristean, Olentzero, Mari Domingi, Porrotx eta Xixuko oholtza gainera igoko dira.

Eta ezusteko ederra eskainiko du Xixukok. Olentzeroren lagunak bere ikasketak amaitu ditu eta postari titulua atera du. Beraz, hemendik aurrera haurrei Olentzeroren etorrera igartzeaz gain, Olentzerori haurren eskutitzak jasotzen lagunduko dio Gabon gauean.

Era honetara, Olentzero eta Xixukok eskutitzak jasoko dituzte 18:15etatik aurrera. Bitartean jaiak ez du etenik izango. Izan ere, Amalur trikitixa eta pandero eskolako lagunek gabon doinuak eta palza dantzan jartzeko fandango eta arin-arinak eskainko dituzte.

20:00ak aldera, Olentzerok agur esango die Okendoko haurrei. Izan ere, gau nekeza izango baitu.

Mendira bueltatuko da haur guztien eskutitz eta ilusioekin. Azken orduko opari aldaketak egin, afaldu, guztia zakuetan antolatu eta bere astoaren laguntzaz etxe guztietan opariak banatuko ditu.

Iaz Olentzeroren etorrera jaialdia ikusten haur, gazte eta helduak izan ziren. Ea aurten ere irudi hau errepikatzen den.

Haurren muxuak eta eskutitzak jasoko ditu Olentzerok 20:00ak arte.

Egun osoan, gabon kantak

Baina gure herriko kaleetan Eguberri bezpera giroa goiz goizetik izango da. Izan ere, Lasarte-Oriako hainbat talde aterako dira herriko kale eta baserrietan gabon doinuak abestera.

Goizean, 10:00etatik aurrera, Antonio Blas plazatik irten eta auzoan, zein auzo inguruko baserrietan gabon kantak abestuko dituzte auzotarrek.

Landaberri ikastolako ikasle eta gurasoak Amalur trikiti eta pandero eskolaren laguntzaz Olentzeroarekin kantuan 11:00etan aterako dira.

Arratsaldean Alboka abesbatza ere Atsobakar zaharren egoitzan hasi eta herriko kaleetatik barrena ibiliko da kantuan. Bestalde, baserriz baserri kantatuko dute Erketz Euskal Dantza Taldekoek.

Beraz jai giroa herriko etxe, baserri eta txoko guztietan zabalduko da egun osoan zehar.

Entseguak

Erketz EDT eta Zabaleta auzoko lagunek gaur, astelehena arratsaldean ahotsak prestatzeko entsegua egingo dute.

Zabaleta auzoko lagunek 19:30ean dute hitzordua Antonio blas plazako lokalean.

Erketz EDT-k 20:00etan, Zumaburuko ikastolako lokalean du entsegua.

Herritarrak gonbidatu nahi dituzte taldeekin batera gabon bezperako erronda egitera.

Arratsaldeko 17:00etan abiatuko da kalejira erraldoia kiroldegitik. Harreraren ostean, Olentzero eta Xixuko 18:30etik 20:00etara eskutitzak jasotzen izango dira Okendo plazan.

Kriseilua egiteko pausoak

Amaraun ludotekako haurrek bi saio ezberdinetan prestatuko dituzte aurten Olentzeroren kalejiran eramango dituzten kriseiluak.

Iaz plastikozko edota metalezko poteekin eta laranjekin egindako kriseilu soil eta politak egin zituzten eta oso esperientzia polita izan zen baina aurten kriseilu modernoagoak eta surik gabeak izango dira.

Gaur saioa

Ostiralean, Gazte Klubeko lagunek haien kriseiluak egin zituzten.

Begiraleen laguntzaz papera, soka, plastiko gogorra, guraizeak eta zeloarekin zati desberdinak egin eta guztiak ederki batu zituzten. Linterna barruan sartuaz, Olentzeroren bidea argitzeko prest utzi zituzten gutziek.

Gaur arratsaldean, Ludotekan bigarren saioa izango da, 16:30tik aurrera, Amaraun ludotekako haurrak izango dira bertan.

Etxean egin

Baina saio hauetara hurbildu ezin izan diren haur eta gaztetxoek ere badute etxean kriseilu ederra egiteko aukera.

Amaraun eta Gazte Kluba arduradunek eman beharreko pausoak azaldu dizkigute.

Kriseiluak egiteko linterna bat, zetazko paper argia eta soka edo artilea behar dira.

Linternari dagokionez, "eskuko linterna izan beharko luke".

Zetazko papera "zuria, horia edo laranja" gomendatzen dute.

Pausoak

Lehenik zetazko paper zati bat hartu behar da, folio baten tamainakoa. Hau bertikalean tolestu eta horizontalki jarrita goraizearekin hiru zentimetroka moztu.

Jarraian, orrialdea horizontalean jarri, bi alboak batu zeloa erabiliz eta tutu bat sortuz. "Tutuak linternaren diametroa izan behar du gero ongi eusteko".

Linterna paperera eutsi zeloaren laguntzaz.

Azkenik, kriseilu antzera erabiltzeko goiko aldean zulo batzuk egin eta soka sartu. Zuloak zeloaren laguntzaz ongi sendotu soka sartu baino lehen

Amaraun ludotekako arduradunek kriseiluak egiteko gonbidapena luzatu diete haur eta gurasoei. "Nahi duten kriseiluarekin etorri daitezke, poteak, laranjak... Olentzero haien argiarekin ibiliko da herriko kaleetatik barrena".



Gazte Klubeko neska-mutilek kriseiluak egiteko ederki jarraitu zituzten begiraleen gomendioak.

Gabonetan adin guztientzako ekintzak

Santo Tomas jaialdiarekin hasi eta Ekialdeko Errege Magoekin amaituko dira Gabonak

Iritsi dira Gabonak. Bi astez egunerokotasuna alde batera utzi eta familia giroan igarotzeko egunak ditugu hauek. Larunbatean, Santo Tomas egunak eman zien hasiera eta Errege Magoen etorrerarekin amaituko dira. Tartean familia giroan gozatzeko ekintza ugari izango da Lasarte-Orian eta bereziki etxeko txikiek eta gazteak ez aspertzeko egitaraua antolatu da. Berrikuntza batzuk dakartza aurtengo egitarauak.

Larunbatean, Santo Tomas egunean zabaldu zen Gabonetako Haur Parkea.

Gabonetarako egitarau oparoa antolatu du aurten ere udalak herriko hainbat elkarterekin batera. Eguberritako Haur parkea, zinea, antzerkia... etxeko txikiek egun hauek ederki igarotzeko hamaika ekintza izango dituzte. Helduentzako ekintzak ere izango dira.

Haur parkea

Larunbatean Eguberritako Haur Parkeak bere ateak ireki zituen Michelingo kirol gunean. Abenduaren 31 arte zabalik izango da Lasarte-Oriako haur eta gazteek ederki goza dezaten.

Parkearen ordutegia 11:00etatik 14:00etara izango da eta arratsaldez, 17:00etatik 20:00etara. Abenduaren 24ean goizez izango da bakarrik eta Eguberri egunean itxia egongo da.

Kirol guneko pilotalekuako afonoa 250 pertsona eta karpa 100 pertsonetara mugatua dagoenez, goiz eta arratsaldeak ordu eta erdiko bi txandatan banatuko direla jakitera eman dute antolatzaileek.

Adin guztietarako guneak

Eguberritako parke berezi honek lau gune ezberdin izango ditu aurten.

Kirol guneko pilotalekuan 0-12 urte arteko haur eta gaztetxoentzat bi gune izango dira eta familientzako gunea ere izango. Bertan animazio puntua egongo da.

0-5 urte bitarteko haurrentzat ludoteka, bola piszina, mozorroak, puzgarriak, jokoak eta eskulanak izango dituzte.

6 eta 12 urteko gaztetxoek berriz, puzgarriak eta tailerrak, besteak beste birziklatutako materiala landuko dituzte, Eguberritako apaingarriak edo globoflexia ere izango dira.

Era berean, tailer bereziak izango dira, abenduaren 26an Euskal Mitologia izango da gaia; 27an, Udala lantzen ari den aniztasun kulturalarekin loturiko munduko kulturak eta 28an, etxeko txikiek sukaldean bere lehen pausoak eman ahalko dituzte sukalde osasuntsua izeneko txokoan.

Teniseko pistan berriz, 12-14 urte bitarteko gaztetxoentzako karpa erraldoi bat egongo da.

Karpa klimatizatu honetan jokoa ezberdinak izango dira: futbolin erraldoiak, bideo jokoak, mahai jokoak,... Eta abentura gustuko dutenek, bueltak emateko Aerotrim eta Easy Roller zirkuitua dugu.

Baina jolasez gain, bi ikuskizun ere izango dira. Abenduaren 26an arratsaldeko 19:00etan, "Eromena pistan" dantza ikuskizuna izango da eta magiaz gozatzeko aukera ere izango da abenduaren 30ean, 13:00etan, "Hor doa magia ikuskizuna" saioaren eskutik.

EHP Okendon

Aurtengo berrikuntzetako bat, kirol guneko mugak gainditu eta Eguberritako parkeko nerabeen gunea Okendo plazara ekarriko dutela da.

Gaur, abenduaren 23a, 11:00etatik 14:00etara, herriko gazteek besteak beste, F1 simuladorez, zezen mekaniko eta ohe elastikoaz gozatzeko aukera izango dute.

ASIDEL-entzat sarrera

Lasarte-Oriako Udalak herriko elkarteek Gabonetako parkeko sarrera eta taberna kudeatzeko deialdia egin zuen eta aurten ere, Lasarte-Oriako Langabetuen plataforma izango da kudeaketaren esku.

Udalak azaldu legez, modu horretan, "talde hauek herriarentzat burutzen duten lana baloratuaz eta kontutan hartuaz, helburua diru sarrera extra bat eskaintzea litzateke. Haien lana erraztuko lukeena eta eskaintza hobetzera eramateko aukera bat lirateke eta pentsatzen baitugu".

Sarrerari dagokionez, herritar guztien eskura egon dadin nahi du Udalak, horregatik helduek euro 1eko sarrera ordaindu beharko dute eta haurren kasuan doakoa izango da parkera sartzea.

Irteerak

Bestalde Ttakun K.E.-ren eskutik, gaur Amaraun klubeko lagunek Mungiara doaz Olentzeroren etxea ezagutzera.

Honetan, euskal mitologiako hainbat pertsonaia ezagutzeko aukera izango dute joko eta jolas dibertigarri bidez.

Bihar, abenduaren 24ean, urtero legez, Olentzero eta Mari Dominigiri ongi etorria egingo zaie Okendo plazan Ttakunek antolatutako jaialdian. 17:00etan hasita, Loidi-Barreneko pilotalekutik kalejira egingo da eta 20:00ak bitartean iraungo du jaialdiak.

Gazte klubeko lagunek, berriz, BEC-eko Eguberritako Haur Parkera egingo dute txangoa urtarrilaren 3an, ostirala.

Ur festa

Ederki gozatzeko aukera izango dute ere, abenduaren 26an goizeko 10:00etatik 12:00etara kiroldegiko igerilekura hurbiltzen diren gazteek. Bertan parte hartu ahal izango dute 2001-2008 urteen bitartean jaiotako haurrek.

Kiroldegiko arduradunek gogoratzen dute umeak bakarrik sartuko direla igerilekuan eta igeri egiten jakin behar dutela parte hartzaile guztiek. Behintzat olagarro maila eskatzen zaie umeei parte hartu ahal izateko. Bazkideek doan parte hartu ahal izango dute eta ez bazkideek 3,7euro ordaindu beharko dituzte.

Jaiotza Lehiaketa

Hau guztiaz gain, Danok Kide elkarteak antolatzen duen Jaiotzen Lehiaketako sari banaketa izango da abenduaren 29an, 12:00etan elkartearen egoitzan.

Abenduaren 21ean amaitu zen jaiotzak aukezteko epea. Antolatzaileek gogoratu dutenez, lehiaketara aurkeztu diren lan guztiak San Pedro elizan daude ikusgai eta irabazleak, berriz, Muebles Azpeitian egongo dira.

Antzerkia eta zinema

Manuel Lekuona kultur etxean egun hauetan ere izango da zer ikusia.

Abenduaren 26an eta 29an, "De óxido y hueso" filma ikusi ahalko da.

Film frantses honek Urrezko Globoetarako hainbat izendapen jaso zituen eta 4 Cesar sari eskuratu zituen.

Okendo Zinema taldeak abenduaren 26an eskainiko duen osteguneko saioa berezia izango da gainera. 25 urteren ostean, urtarriletik aurrera zinema saioa egunez aldatuko da, ostiralera.

Antzerkiari dagokionez, abenduaren 28an, 10:00etan, Lan eta Lan antzerki taldeak "Navidad en familia" lana eskainiko du.

T. Wilder-en umorez, gozotasunez, magiaz betetakoa komedia atsegina eskainiko dute EPA-HHI-ko ikasle ohien antzerki taldeak.

3 belaunaldi dauden familia baten ikuspegitik Gabon gaueko afaria erakutsiko digute.

Abenduaren 29, igandean arratsaldeko 17:00etan "Hansel eta Gretel" haurrentzako antzerkia eskainiko du Glu Glu produkzioak.

Grimm anaien ipuinean oinarritutako obra honen protagonistak diren Hansel eta Gretel basoan galduta ibili ondoren, txokolatezko etxea aurkituko dute. Bertan sorgin maltzurrak haurrak giltzapetuko ditu, beranduago jateko asmoz.

Egokitzapen honek ohiko narrazioarekin bat egiteaz gain, gaur eguneko osagai eszenikoak eta musikalak eransten dizkio familia osoarentzako antzezlanari.

Erregeen harreran aldaketak

Urtarrilaren 5ean, berriz, Ekialde Urruneko Erregeak etorriko dira Lasarte-Oriara.

Haur eta gaztetxoek ederki gozatu ahalko dute 26an ur festaz.

Ekialde Urruneko Erregeek haurren harrera Ama Brigitarren komentuko kaperan 16:15etik aurrrera egingo dute aurten.

Eta erregeen etorrera antolatzen duen MEGABA elkarteak aurten hainbat berrikuntza izango direla aurreratu du.

Aldaketarik handiena haurren harrera orduan eta lekuan izango da. Harrera arratsaldeko lehen orduan egingo da, 16:15 eta 17:45 bitartean, eta Ama Brigitarren komentuko kaperan izango da.

"Lekua egonkortu nahi dugu eta aproposa iruditu zitzaigun Ama Brigitarren kapera," diote eta gurasoei gomendio bat egin diete, "ez dezatela azken momenturako utzi. Aurten ordu eta erdiko tartea dago". Izan ere, komentuko ateak itxiko dituzte 17:45ean, "Erregeak prestatu eta Oria auzorantz joan behar dutelako".

Kabagalta

Era honetara, 18:30ean, Oria auzotik hasiko da kabalgata eta honetan hiru erregeak ikusi eta goxokiak jasotzeaz gain, karroza berria ikusteko aukera izango dute herritarrek.

Era berean, baserritarrak, erregeen laguntzaileak, zuzi eramaileak eta Jalguneko lagunek parte hartuko dute desfilean.

Urtero legez, geldialdi bat egingo dute Brigitarren komentuko jaiotzean eta ostean, bidearekin jarraituko dute, Hipodromo etorbide, Iñigo de Loyola eta Geltoki kaletik Okendo plazara iritsiko dira su artifizilen artean.

Eta bertan izango da aurtengo beste berrikuntzetako bat. Erregeek marrazki lehiaketako sari banaketa egingo baitute bertan.

Goizean ere presentzia

Baina arratsaldean erregeekin egon ezin duten haurrek 12:00etatik 13:00etara haien laguntzaileei edo Ama Brigitarren komentuan jarriko diren postontzietan utzi ditzakete eskuitizak.

Eta MEGABAko lagunek aurreratu dutenez, Atsobakar Zahar egoitzeko lagunek Errege Magoen bisita ere izango dute.

Zuzi eramaileak

MEGABA elkarteak azpimarratu du, aurten ez dituztela hainbeste zuzi eramaile behar. Hala ere, abenduaren 26an, izena emateko aukera izango da.

Arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara iaz parte hartu zuten pertsonak inskribatu ahalko dira; 18:30etik 19:00etara, berriz, aurten lehenengoz parte hartu nahi duten herritarrek.

Bertan eskainiko zaie informazio guztia eta haur eta gaztetxoen gurasoak ere hurbiltzea nahi dute, kabalgatako nondik norakoak ezagutzeko.

Gerrak eragindakoa ahaztu ez dadin

101 urterekin Rosario Galan herritarrak gerra garaian bizitakoak gogora ekarri ditu

Galdamesen jaio zen Rosario Galan 1912ko martxoaren 8an, duela ia 102 urte. Egun Atsobakar egoitzan bizi da eta bertan hartu gaitu solasaldia egiteko prest. Buru argia du Galanek, adinak ez ditu oroitzapenak borratu baina mina eragiten duten pasarteak baita hitzak sortesten ditu. Habana ontzian 4.000 haurrekin batera ontziratu zen Santurtziko portuan 1937ko ekainaren 13an. 21 urterekin haurren begirale lana egitea egokitu zitzaion. Bidai hark bere bizitza markatu zuen. Erbestean bizi izan zen 1975ean Lasarte-Oriara senarrarekin, Victoriano Vicuñarekin etorri zen arte.

Maider AZURMENDI

Orain hilabete batzuk ezagutu genuen Sobietar Batasunera gerratik ihesi bidalitako "gerrako haurra" zen Angel Belza herritarra. Belza umea zen Habana barkua hartu eta Errusiarako bidean jarri zutenean. Hain juxtu Rosario Galan itsasontzi hartan egon zen zaintzaile. Berak kontatu dizkigu han bizitakoak. Egun 101 urte ditu Rosariok eta Atsobar egoitzan bizi da.

Rosario Galan Bizkaian, Galdames herrian bizi zen. 21 urte zituen eta gogorazten duenez, "boluntarioak eskatu zituen orduko jaurlaritzak Gerra Zibiletik umeak ateratzeko asmoz Frantzia eta Sobietar Batasunera abiatuko zen itsasontzian umeekin joateko. Norbaitek nire izena eman zuen herrian eta deitu zidaten bidaia egiteko. Hantxe joan nintzen gehiegi pentsatu gabe. Nik orduan ez nuen ezer ezagutzen, ez nuen alderdi batean militatzen ez ezer".

San Anton egunean

Santurtziko portutik irten ziren 1937. urteko ekainaren 13an "Paduako San Anton egunez. Ez dakit zergatik baina hortaz gogoratzen naiz".

Eusko Jaurlaritzak prestatutako bidaia zen haurrak gerratik babesteko asmoz, honetan, jaso denez, 4.500 ume abiatu ziren Frantzia eta Sobietar Batasunera. Beraiekin 75 laguntzaile ontziratu ziren, hauen artean gehienak irakasle eta medikuak. Hauxe ardura hartu zuten bidaiak iraun bitartean.

Rosariok ez ditu inoiz ahaztu ume horien negarrak, bi eta hamalau urte bitarteko haurrak ziren guztiak "hasieran pentsatzen genuen guraso soengandik urruntzeagatik ari zirela negar egiten baina orduek aurrera egin ahala, konturatu ginen gosea zutela. Arratsaldeko hirurak izango ziren eta ez ziguten ezer eman bazkaltzeko".

Habana ontzi txikia zen hainbeste pertsona erameatako, bidaia ez zen batere erosoa izan ata zaintzaileek ezer gutxi egin zezaketen umeak lasaitzeko.

Baina berehala Habanak lehenengo geldialdia egin zuen Bordelen. Bertan jaitsi ziren 1.500 haur eta hainbat laguntzaile "Sobietar Batasunera bidea jarraitu behar genuenok barkuz aldatu ginen eta hor bai bapo eman ziguten jaten".

Nabarmen lasaitu ziren umeak, zaintzaileen harriduararako, tripa bete ostean eta bidaia eramangarriagoa izan zela gogorazten du Rosariok.

Rosario Galan Atsobakar egoitzan bizi da egun "hotela" deitzen dio berak.

Egun batzuk egin zituzten itsasoan eta Leningradora iristean, umeak leku ezberdintara bidaltzeko taldeka banandu zituzten.

"Zaintzaileoi esan ziguten bertan geratzeko aukera genuela, Bilbo faxistek hartu zuten gure bidaiak iraun bitartean eta etxera bueltatzea oso zaila eta arriskutsua izango zela esan ziguten han". Hiru kidek Errusian geratzea erabaki zuten "beldurragatik edo izango zen" baina gainontzekoak bueltatu ziren "nik etxera itzuli nahi nuen, Galdamesera, ez nuen atzerrian geratu nahi. Egia da ere ez nintzela Bilbon bizi zen egoeraz guztiz ohartzen".

Negrin sendia

Horrela Rosariok bueltako bidaia egin zuen itsasontzian baina Bilbo hartuta zegoen eta itsasontziak ezin zuen bertan sartu, "Frantzian utzi ginduen eta Kataluniara pasa ginen. Puigcerdara iritsi ginen eta han etxe desberdinetan hartu gintuzten".

"Ramoni kidearekin batera egokitu zitzaiden etxe bat baina egun gutxi batzuetan bera gaixotu eta hil egin zen.

"Konturatu ginen umeek negar egiten zutela batez ere gosea zutelako. Sobietar Batasunera bidean ez genuen goserik pasa, hor bai Habanan ez bezala ondo zaindu gintuzten"

"El Habana" izeneko barkuak eraman zituen haurrak Frantziara Gerra Zibiletik ihesi 1937ko ekainaren 13an.

M. Berasategi Kafeak

Nespresso kafe-makinekin bateragarriak diren kapsulak

INFUSIOAK
• TE BREAKFAST
• TE TXURIA
• TE BELTZA
• TE GORRIA (Pu-Erth)
• TE BERDEA
• TE EARL-GREY
• TE JAVA
• TE CEYLAN
• TE SAPOREAREKIN e.a....

TINA OABEAK
• MELISA, TILA, KAMAMILA, MENTA, SAGARRA, ANIXA, MAKILGOXO, ROOIBOS, e.a...

KAFE APAIRIKOA
• PARACATU (Brasil)
• TARRAZU (Costa Rica)
• Betiko KOLONBIA

Hipodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
20160 LASARTE-ORIA

Eguberri on!
Beti dago aukera kafe on bat hartzeko

Bilbo hartuta, Piugcerdan geratu behar izan zuten eta Rosario Galan Juan Negrin buruzagi errepublikarraren familiarentzat lanean jarri zuten

Niretzako ikaragarria izan zen lagunaren galera. Bakarrik nengoen ezagutzen ez nuen leku batanean eta nire nahi bakarra gurasoekin itzultzea zen". Bere helburua lortzea zaila izango zela konturatzean egoera onartzea besterik ez zuela izan dio Rosariok.

Kasualitatea izan zen baina Piugcerdan zegoen garai horretan Juan Negrin buruzagi errepublikar ezagunaren familia, emaztea eta seme-alabak eta "ni haien zerbitzura jarri ninduten".

Negrinek bere emaztearekin hitz egin nahi zuenean "telefonoz deitzen zuenean batez ere" Galanek egiten zuen bitartekari lana eta egoera zaila izan arren, nahiko oroitzapen onak ditu denbora horretan Negrin familiarekin bizitakoaz.

Ez zen denbora asko egon beraiekin, hauek Bartzelonara mugitu behar izan zuten eta bera Puigcerdan geldितu zen.

Ordurako ezer gutxi zekien bere familiaren inguruan. Egoerak okerrera egin zuen nazionalek ingurua kontrolpean hartu zutenean eta ihesi Bartzelonara joan behar izan zuen. Han errepublikaren aldeko beste familia baten etxean hartu zuten. "Bartzelonan bai denbora eman nuen, hilabete batzuk izan ziren eta zorionez oso gustura egon nintzen familia harekin. Alaba bakarra zuten eta ondo hartu ninduten baina gerrak aurrera egin ahala, Bartzelona ere erori zen eskuindarren esku eta arrisku handia zegoenez, berriz ere ihes egitea egokitu zitzaion Galani.

Etxera itzulera

"Herrira itzultzera lortu nuen eta han aurkitu nuena gogoratzea bakarrik mina ematen dit".

Familiaren baserrira itzultzean, ama denbora bat lehenago hil zela esan zioten. Aita ordurako Barakaldora mugitu zuten "meategian egiten zuen lan aitak Altos Hornosentzat baina gerra tarteko, mehatzeko lanetik kendu eta Barakaldora, lantegiko eginkizunetan jarri zuten. Anaia ere aitarekin egiten zuen lan meategietan baina bera bai politikan buru belarri sartu zen. Ezkertiarra zen eta dinamitarekin esperientzia zuenez lan horretan aritu zen gerra garaian. Han-hemenka lehergailuak jartzen".

Hala ere, etxean lasai sentitzen zen Rosario eta inguruko baserritetako umeentzat eskola moduko bat sortzea otu zitzaion. Gerrak gogor jo zuen ingurua "eskasia zegoen". "Baserri askotako umeak ez zituzten eskolara bidaltzen urruti egoteaz gain, "egun horiek pasata beste presoekin jarri ninduten eta han egin nituen bi urte, nire bizitzako urterik luzeenak".

Egun batean, "uste dut ofizial batek azkenean nire istoriroa sinistu zuela nolabait, hau da, nik ez nuela ezer txarrik egiten, eta egun batetik bestera "libertad atenuada" delakoa eman zidaten".

Makiei laguntza

Hala ere, Rosariok umeei eskolak emateaz gain, makiei laguntza eskaintzen zien tarteka. "Garai hartan makiak zeuden Galdames inguruko mendietan eta batzuetan laguntzen nien. Ez nuen gauza handirik egiten. Adibidez, pakete bat eman eta eskatzen zidaten nonbaiten uztea eta horrelakoak. Hala ere, parte hartze hau ez zen ezaguna izan, espetxean ere ez zidaten halakorik leporatu".

Makiekin zuen harremanagatik, espetxetik atera ondoren, hauek Rosariori herritik ateratzea gomendatu zioten, haiek prestatu zuten Frantziarako ihesa.

"Hamabost egunero komisaldegira joan behar nuen sinatzera, ihes ez nuela egin ziurtatzeko kontrol modu bat zen. Hamabost egun horiek baliatuz, egun batetik bestera dena prest zegoela esan eta Frantziarako bidea hartu nuen. Zehazki Hernanira ekarri ninduten".

"Hernanitik abiatuta gau oso bat eman genuen mendietik muga pasatzeko makientzat gida lanak egiten zituen inguruko baserritar batek iragandu. Nirekin batera beste hiru gizon zihoazen ihesi". Gau hura oso gogorra izan zela gogorazten du Rosariok.

"Bidasoa ibaia pasatzeko gona altxatu arren busti egin nintzen eta tarteka sastraka artean ezkutatu behar izan genuenez, hotzak eta nekeak ia jasanezina bihurtu zuten bidea". Azkenean mugaz beste aldean zegoen etxe batera sartu zituztenean "ez dut ondo gogoratzen erori edo bota egin nintzen baina nekearen eraginez, leher egindа lurrera erori nintzen".

Oraindik Rosariok bere buruari galdetzen dio nolatan hain gazte izanda ausardia izan zuen hura egiteko "ausardia ez da nahikoa, ez dakit nola agoantatu nuen".

Parisen erbesteratua

Hendaian egun batzuk egin zituen Rosariok eta handik Parisera joan zen. Parisen maki hauek ezagun batzuek hartu zuten eta kontaktuei esker lana bilatu zioten.

"Josten nekien eta jostungintza tailer batean hasi nintzen lanean, bertako jabea madrildarra zen eta ni bezala ihes egindakoak hartzen zituen noizbehinka".

Hantxe pasa zituen berrogei urte inguru 1975. urteau arte bueltatu zen arte. Hasieran komisaldegian azaldu ez zenez, poliziak bere argazkia argitaratu zuen prentsan bilatzen zutela esanez eta orrialde haiek bidaltzen zizkioten Parisera. "Niri grazia egiten zidan hura ikustea".

Parisen ezagutu zuen senarra "mendian jendea pasatzen ibiltzen zen horietako bat zen bera eta Parisen ezagutu nuen. Han ezkondu ginen noski zibiletik". Lasarte-Oriakoa zen bera eta posible izan zenean hona etorri ziren, hemen zuen senarrak familia guztia eta Bizkaian dagoeneko, anaia bakarrik zuen Rosariok.

"Parisen zoriontsuak izan ginen baina buruan beti zegoen herria, faltan botatzen genuen hau eta erbestetik asko sufritu genuen hemen gertatzen ari zenarekin".

Larrinagako espetxea Bilboko Santutxu auzoan zegoen eta 600 laguntzetako lekua izanda, 3.500 preso izatera iritsi zen.

ABEND KAFE-ANTZOKIA
Gaigabe 5ak arte irekita!
Eguberri on!
EGUNEKO MENUA
DANTZA
BOKATAK
KONTZERTUAK
Pablo Mutiozabal 5 • Tel.: 943 372089
LASARTE-ORIA

"Bi urte egin nituen preso Bilboko Larrinaga espetxean doktrina errusiarra erakustea egotzita. Galdamesen inguruko baserrietako haurrei eskolak emateagatik"

Parisen bizi izan ziren Rosario eta senarra Frankismoa amaitu eta etxera buelatatu ahal izan zuten arte.

Diktadura garaian ezinezkoa zen bikotearentzat muga pasatzea eta aita eta anaia joan zitzaizkion behin bisitan Parisera "aita zaharzaharra ikusi nuen eta gaixoak bidaia egin zuen ni ikusteagatik. Soilik lau egun egon ziren eta distantzia horrekin bizitzen ikasi behar izan genuen".

Paris hiriburu polita dela kontatzen du Rosariok, "Frantsesa ikasi nuen berehala, beste erremediorik ez nuen".

Errepublika plazatik gertu bizi ziren bera eta senarra eta Maurice Chevalier garaiko aktore ezaguna bizilagun zutela oroitzen du irribarretsu.

Hala ere, herrimina handia zen eta frankismoaren amaierarekin itzuli ziren Lasarte-Oriara.

Egindakoaz harro dago Rosario baina bere gaztaroa gerrak, espetxealdiak eta erbesteak markatu zuela dio penarekin, ama hil aurretik ez ikusteak markatu zuen bereziki.

"Asko sufritu genuen, inoiz ikusi nahiko ez nituen gauzak ikusi eta bizitzea egokitu zitzaidan. Hori gaindituta, askotan pentsatzen dut nola den posible 101 urte bete eta 102rako bidean egotea".

Rosario Victoriano Vicuñaren emaztea zen, Vicuña herritarraren inguruan erreferentzia asko aurki daitezke bere militantzia politikoa erbestean ere jarraitu zuelako besteak beste.

Beti senarraren itzalean aurkitu zen Rosario eta berarentzat gorde ditu urte luzetan Vicuña ezagutu aurretik egindakoak.

Orain ordea, emakume ausarta eta indartsua izan zela aitortu nahi dio bere buruari. Atsobakarreko langileek ere hala nahi izan dute. Haiek entzun izan dituztelako azken urteetan Rosariok kontatutakoak.

Historia ezagutzera eman

Urteetan kazetari zein ikerlari askorekin mintzatu da baina ia beti senarraren inguruko informazioa eskatu diote. "Pentsatzen nuen nik bizitakoak bigarren mailakoak, edo hainbesteko garrantzia ez zutela baina ni ere izan nintzen, zorionez edo zoritxarrez pasarte askoren lekuko," adierazi du.

Gerrak etxe guztietan eragin zuen mina azpimarratzen du eta horrelakoak berriz ez gertatzeko funtsezkoa iruditzen zaio belaunaldi berriek ere orduan gertatutakoa ezagutzea "ez dakit zer erakusten den eskoletan baina irudipena daukat gazteek ezer gutxi dakitela gerra zibilaz eta bizi genuenaz" .

Aldi berean gaiaren inguruan argitaratu diren hainbat gauza egi osoa kontatzen ez dutela dio haserre puntu batekin baina gezur edo egi erdi horiek zeintzuk diren argitzea ez da sartzen.

Bere istorioa, Rosariorena, kontatzeko arazorik ez duela behin baino gehiagotan errepikatu digu baina beste batzuk tartean daudenean, gehiegi ez sakontzea erabaki eta hori errespetatzea eskatu du.

Amaia Andres Lasarte-Oria Kirol Elkarteko lehendakaria

"Ez dut kirola lehiaketa gisa bakarrik ulertzen, askoz gehiago da"

Bartzelonako Olinpiar Jokoetan aritu zen korrikalaria LOKEko lehendakari da gaur egun

Pistan bezain azkarra da hitz egiten Amaia Andres (Donostia, 1966). Emakume alaia eta bihotz onekoa, bizkorra. Oscar Goikoetxea senarra alboan, Michelingo kirol-guneko atletismo moduluan orduak eta orduak pasatu zalea da. Gaztetxoei laguntzeko prest astea joan eta astea etorri. Presidente olinpikoa. Ez bakarrik Bartzelonako jokoetan 800 metroetako proban parte-hartu zuelako, goi-mailako kirolari izanda, herri mailan harrobiaren alde lan egiten jakin izan duelako baizik. Pertika jauziko koltxonetan egin dugu elkarrizketa, hankak lurrean.

Jon ALTUNA EGITEGI

Galdera konprometituenak ere erantzun ditu Amaia Andresek. Kirol ibilbidea errepasatu eta LOKEko presidente den aldetik dituen erronkez ere mintzatu gara. Gauzak diren bezala esan zalea da. Zirt edo zart, bakoitzari berea eman dio LOKEren historiako lehen emakumezko presidenteak.

Orain ari omen zara gozatzen kirolarekin. Goi-mailan zenbiltzanean ez al zenuen gozatzen?

Disfrutatzen nuen, baina oso gutxitan. Hainbesteko esfortzua eskatzen zidan... Zenbait entrenamendutan edo bidaietan bakarrik gozatu nuen zerbait... Momentuan ez duzu ia ezer baloratzen.

Atletismoko lehen urteez oroitzapen ona gordetzen duzu ordea. Loinazpe ikastetxea, Altamira zelaia, Ordiziako kluba... Zer esan nahi dute zuretzat?

Horiek dira nire oroitzapen onenak. Beasainen hasi nintzen atletismoa egiten, gimnasiako irakasleak bultzatuta. Hasiera haietan izugarri gozatzen nuen. Ordiziako Klubean familia txiki bat ginen.

Oso goiz hasi zinen atletismoan nabarmentzen. Espainia mailan bazuten zure aditzera 13 urte betetzerako. Onura edo kalte egiten du? Ona al da hori neskato gazte batentzat?

Ez. Gertatzen dena da ezin duzula ezer egin, inertziaz etortzen zaizu guztia. 15 urterekin jada nazioarteko txapelketetan aritzen nintzen.

Amaia Goierrin hasi zen atletismoan, ondoren, hamaika pista ezagutu ditu.

"Ez nuke ezer aldatuko. Ametsa bete dut. Betebeharrak eginda nituenaren sentsazioarekin utzi nuen kirola eta jende guztiak ezin du hori esan"

Nik ez nuen serio entrenatzen. Korrika egiteagatik egiten nuen korrika... Ez nuen nire burua gehiegi behartzen. Baldintza onak nituen lasterka egiteko eta kito.

Baina urteak pasa ahala konturatzen zara psikologikoki oso gogorra dela. Beste gauza batzuk egin behar dira adin horrekin. Ni ikasten ari ez banintzen, korrika nenbilen.

Diskoteka eta herrietako festetara gutxitan joaten zinen orduan...

Ez nuen faltan botatzen. Lehen San Sebastianak, Santo Tomasak 33 urterekin gozatu nituen, pentsa. Garaiak aldatu egin dira orain.

Bi urtez geldirik egon zinen oin kaboak zenituela eta, ebakuntza egin zizuten eta...(galdera eten du)

Minekin hasi nintzen 16 urterekin. Garai haietan kirolmedikuntza ez zegoen hain aurreratuta. Bizi osoan plantillak jarrita bizi edo ebakuntza egitea ziren aukerak.

Aukera okerra egin nuen. Alvarez medikuak operatu ninduen, dena azkar xamar joan zen, presionatuta sentitu ginen komunikabideengatik.

Urte eta erdi entrenatu gabe egon nintzen, eta lehen 6 hilabeteak gurpildun aulkian egin nituen. Gelditzea beste aukerarik ez nuen eduki.

Gaur egun ez dute inor operatzen lesio horregatik. Eta errekuperazioa ere oso garatua dago orain. Pena izan zen...

Madrid eta eta goi-mailako Blume errendimendu zentroa. Zer esan nahi dute bi hitzok zuretzat?

Buff... esanahi txarra dute niretzat.

Bekadun joan nintzen hara 17 urterekin. Aldaketa handia izan zen. Familia ziru-dien klub txiki batetik nentoren... eta guztia handi gertatu zitzaidan. Institututik goi mailako zentro batera joan nintzen. Ni baino jende zaharragoa zegoen.

Entrenatzaileek asko zaintzen ninduten, egia da, baina hango entrenatzaileak ez zintuzten pertsona bezala baloratzen. Haientzat zenbaki bat zinen, marka bat. Jokabide sobietarra zen. Blumeko atea zeharkatzen zenuenean ez zinen inor. Askoren artean, beste atleta bat bakarrik zinen haientzat.

Baina emaitzen aldetik onenak izan ziren... Munduko bi txapelketatan parte-hartu, Europako hirutan eta 1992an Bartzelonan izan zinen Olinpiar Jokoetan. Ez da gutxi.

Baina pasa izan behar dudan guztia pasatzeko ez nuen hainbesteko saltoa eman.

Zer izan ziren zuretzat 1992ko Bartzelonako Joko Olinpikoak? Lehenengo kanporaketan kaleratua izan arren, marka pertsonala egiteko asmoarekin irten eta gertu geratu zinen...

Oro har, sekulako esperientzia izan zen. Eta harro esan dezaket Ordiziako klubeko atleta izanda joan nintzela Bartzelonako Joko Olinpikoetara.

Kirolarioi kasu asko egiten ziguten, nahiz eta maila ona ez eduki. Kazetariei Ordiziakoa nintzela esateak ileak lazten zizkidan.

Emaitzak gainera onak izan ziren... Dena atera zen primeran, inaugurazio ekitaldia, domina festa...

Kalean zindoazela eta Espainiako txandalarekin ikusita besarkadak eta animoak ematen zizkizuten... ene... NBAko jendea ikusteak ere harritu ninduen, asko aberastu ninduen esperientzia izan zen... Ez dut sekula ahaztuko.

Donostiako Belodromoari kariño berezia diozula uste dut.

Bai, ia Olinpiadakoa baino oroitzapen hobea dut.

Olinpiada beste gauza bat da. Baina Euskadiko Sei Orduetako antolatzaileek izugarri ondo tratatu gintuzten. Belodromoa beterik, jendeak apustu egiten zuen... Hura zen giroa!

Dueloa egin nuen Ainhoa Ostolaza txirrindulariarekin. Berak lau buelta egin behar izan ziren... 60 kilo pisatzera ere iritsi nintzen. Kirolari baten bizitzan aldaketa asko egoten dira, baina bidea egiten jarraitzea da garrantzitsua.

Marka ona duzu gainera 800 metroetan: 2:02:33. Gaur egun Euskal Herrian ez dago inor marka horietan dabilenik. Zertan aldatu dira gauzak?

Gaur egun ez dabil inor, baina marka egingarria da. Pentsa, nesken Munduko Errekorra 1:53an dago. denbora hori ez da inoiz hautsiko. Seguru ez dela halakorik berriz egingo.

Doping asko zegoen garai haietan eta zuk bazenekin zein zihoan garbi eta zein ez. Gaur egun, zorionez, kontrolak asko gogortu dira, baina garai haietan marka estratosferikoak egin ziren. Dena den, klubeko edo Gipuzkoako norbaitek nire probintziako errekorra kenduko balit ilusioa egingo lidake, baina gaur egun urruti xamar dabiltza.

Mediterraneoko Jokoetan ere maila txukuna eman izan duzu. 1991an Atenasen bosgarren 800 metroetan eta hirugarren 4X400en Espainiarekin. Bi urte geroago Narbonan brontzea 800 metroetan.

Bereziki gogoan daukat Greziako errelebo hura. Taldekako lorpenak askoz gehiago gozatzen dira, badakizu.

Pista estalian 6 aldiz izan zara Espainiako txapeldun (1986-1995 artean). Aire librean behin bakarrik (1993). Zein izan daiteke arrazoia?

Nik uste gaizki planifikatzen genituela denboraldiak Bartzelonako urtea kenduta. Urte hasieran egiten den pista estaliko denboraldian ia marka hobea dut aire librean baino. Ez da normalena. Apirila edo maiatza aldera ia beti aneman batekin edo hasten nintzen...

Badaude pertsona batzuk zure kirol ibilbidean, bai momentu gozoetan eta bai babesa behar zenuenean alboan izan dituzunak. Josetxo Imaz, Txato Caballero eta Benjamin Gonzalez entrenatzaileez ari naiz. Zer esan nahi dute izenok zuretzat?

Ba, tamalez, hirurak hilda daude. Imaz eta Caballerok asko zaindu ninduten etxeko klubean. Biei oso eskertuta nago. Oraindik ere emozionatu egiten naiz. Asko eskertzen diet formatu ninduten horiei. Entrenatzen ez bazenuen errieta egin eta behar izanez gero etxera zure bila joaten ziren horietakoak ziren. Beti aritzen ginen txantxetan...

Gerora, Benjamin Gonzalezekin aritu nintzen. Gonzalez Munduko Txapeldun izan zen 800 metroetan eta ohorea izan zen berak entrenatu izana, baina ez zitzaizkigun gauzak ongi atera.

Orain LOKEko presidente kargua hartu duzu. Zer esan nahi du karguak zuretzat?

Argi utzi nahi dut. Manuel Morales eta Jesus Diez dira era altruistan, itzaleko eta itzelezko lana eginez klub hau aurrera atera dutenak.

Errelebu bat behar dute, niretzat pertsonalki poztasuna izan da Ohorezko presidente izendatu izana. Beraiek ere lanean jarraituko dute, baina ni izango naiz Diputazioa, erakundeak eta Michelinen gisako babesle pribatuen aurrean aurpegia emango duena.

Krisiaren eraginez, dirulaguntzak asko jaitsi dira, egoera zaila da eta hor ere ahal dudan guztia egingo dut klubaren hobe beharrez.

Ze helburu dituzu zure agintaldian?

Aurrekoek egin duten lanarekin jarraitzea. Baina batez ere herriko kirola eta neskena bultzatzea dut helburu. Oinarria landu behar dela uste dut. Eskolartekoetan dabiltzan gaztetxoekin egin behar da lan, piramide bat bezalakoa baita hau.

Gure kasuan, LOKEn, oinarri ona daukagu. Gehienak neskak dira, %80 inguru. Urteek aurrera egin ahala, 15-16 urterekin dagoen kortea zaindu behar dugu. Dena delakoagatik, askok adin-tarte horretan uzten baitute kirola. Unibertsitatera joaten direnean ere askok kirola alde batera uzten dute. Harrigarria da, etapa zail hori pasa duten asko 40 urterekin berriz hasten direlako kiroldegietako gimnasioetara joaten.

Nik ez dut kirola konpetizio mailan bakarrik ulertu nahi, jendeak kirola jarduera fisiko bezala ulertzea nahi nuke, lehiaketez ahaztuta.

LOKEk kirol eskaintza handitu dezake?

Zaila da. Gaur gaurkoz judo, gimnastika erritmikoa, tenisa eta atletismoa ditugu LOKEn. Lehen Ping pong eta ziklotourismo sekzioak ere bagenituen... Tamalez galdu egin dira.

Eliteko kirolari ohi izateak lagunduko al dizu zure presidente lanean?

Borrokan egin behar badut egingo dut. Kirolak eman dizkidan baloreak transmititzen saiatuko naiz.

Eliteko kirolari izan naizen aldetik, nire aletxoa gehitzen saiatuko naiz.

Maite Rueda (gimnastika), Gorka Aristegi (judoa), Manuel Morales (LOKEko zuzendaritzako kidea), Amaia Andres (Atletismoa eta Ohorezko lehendakaria) eta Xabier Gonzalez (tenisa) LOKEren denboraldi amaierako bazkarian.

LOKEko lehendakari izateaz gain, txikitxoei atletismoan lehen urratsak ematen laguntzen die Andresek (laranjez).

"Anekdota gisa esango dizut lehen San Sebastianak eta Santo Tomasak 33 urterekin gozatu nituela, pentsa, baina aurretik ere ez nituen gehiegi faltan botatzen"

"Manuel Morales eta Jesus Diez dira era altruistan itzaleko eta itzelezko lana eginez LOKE aurrera atera dutenak, asko zor diegu haiei"

Iraupen-erdiko lasterketetan espezialista izandakoa da Amaia Andres, 800 metroetan berezki. Gipuzkoako errekorraren jabe da oraindik ere (2:02:33). Indar handiko atleta zen, berezko ikaragarriarekin. Naturaren oparia.

Jose Mari "Txema" Indias Toledo K.E.-ko idazkari teknikoa

"Pribilegiatuak gara gustatzen zaigun hori eginez bizimodua ateratzen dugulako"

Txema Indias lasartearra diasporan ari da bizimodua egiten. Toledon bizi da Rakel emaztea eta Anne alabarekin. Hiriak 2.B mailan duen futbol-taldeko idazkari teknikoa da gaur egun. Futbolzale amorratua izateaz gain futbolari ere izandakoa da. Kotxeras euzoan hasi zen futbolean lagunekin jokatzen handik Texasera eta gero Michelinera jauzia emateko. Herriko etapa amaituta, Aranjuez, Touring, Barakaldo, Beasain, Talavera, Real Avilés eta Noveldan, Merida, Linares, Motril, Mar Menor eta Roquetasen jokatu zuen, 2.B eta hirugarren mailako taldeetan. Bistan da baloiari loturiko bizitza daramala, pribilegiatu sentitzen da gustatzen zaion hori lanbide duelako.

Jon ALTUNA EGITEGI

Zer egiten du lasarteoriatar batek Toledon. Kontaiguzu ibilbidea pixka bat.

Hiru denboraldi eta erdiz CD Roquetas taldeko Idazkari Tekniko izan nintzen Almerian. Bertan igoera erdietsi eta 2.B mailan denboraldi tsukuna osatu ostean kluba uzteko erabakia hartu nuen, Almerian osatutako zikloa amaitu nuela uste bainuen. Beste aukera batzuk begiratzen hasi nintzen, urtebete egin nuen langabezian eta bilera bat edo beste egin nuen hainbat talderekin. Horietako bat zen Toledo, gehien erakarri ninduen kluba. Erraza izan zen akordio batetara iritsi eta lanean hastea.

Kirol arloari dagokionez bikain doakizu. 2.B mailara igo zenuen Toledo. Zure presidenteak dio igoeraren errudun nagusienetakoa zu zera zarela. Zerk erakarri zintuen kirol proiektu hartatik?

Fernando presidenteak estimu handitan nau eta horregatik esaten ditu halakoak. Momentu zailak bizi izan ditugu klubean elkarrekin, baina baita momentu gozoak ere. Elkarrekin igo genuen Toledo 2.B mailara eta proiektu berri bat hasi genuen. Baina toledoar familia osatzen dugun guztiok jarri genuen aletoa. Halere merituguztia zelaian jokatzen dutenena dela uste dut. Igandero zelaian duten guztia uzten dutenena.

Klub honen historiak erakarri ninduen, probintziako hiriburu izateak eta presioa handia izateak ere bai. Maila personal eta profesionalean hazten laguntzen didan orok erakartzen nau.

Zein da zure lana klubean? Zein zailtasuni egin behar diezu aurre?

Kategoria hauetan idazkari teknikoak denetarik egin beharra dauka, lehen taldeaz arduratu behar du, harrobiko taldeez ere bai, aurkariak aztertu behar du, ikuskatzaile lanak egin... Arazo asko edukitzen ditugu, baina ez dut uste kexatzeko eskubiderik daukagunik, pribilegiatu batzuk gara gustatzen zaigun horretan lan egin eta gainera hortatik bizi garelako.

Zein da zuen denboraldiko helburua? Hamaikako lehiakorra osatzea lortu duzue?

Helburua argi eta garbi daukagu. Taldea kategoria honetan finkatu eta hortik aurrera pixkanaka-pixkanaka urtez urte hazten joatea. Toledo bi jaitsiera eta bi igoera bizitzetik dator lau urtetan. Egoera hori ez da ona, ezin da errepikatu. Umiltasunez lan egin beharra daukagu eta partidaz partida pentsatu. Maiatzean ikusiko dugu noraino iristeko gai izan garen.

Egia esan talde polita dugula uste dut. Zorte handia izan dugu entrenatzailearekin, Imanol Idiakezek zuzenduko du Toledo eta etorkizun handiko prestatzailea dela uste dugu. Hortik aurrera, ilusio eta inplikazio handia zuten jokalariak batzen saiatu gara eta benetan uste dut lortu dugula.

Baina ibilbide hau guztia Lasarte-Orian hasi zen...

Ume nintzela futbolean ibiltzen nintzen Kotxerasen, baina berehala hasi nintzen Texas eta Michelinekin jokatzen.

Zorte handia izan nuen Michelinen Mikel San Juan izan genuelako entrenatzaile eta futbolaz zekien guztia erakutsi zidan gazte nintzela.

Handik aurrera, jubenileetan Jaenera joan nintzen, eta han debuta egin nuen 2.B mailan, 17 urterekin. Hurrengo urtean Atletico de Madrid taldeak fitxatu ninduen jubenilekin aritzeko eta hurrengo urtean harrobiko taldean aritu nintzen. Etapa hori amaituta Aranjuez, Touring, Barakaldo, Beasain, Talavera, Real Avilés eta Noveldan jokatu nuen, beti 2.B mailan.

Kirol ibilbideko azken urteetan 3. mailan aritu nintzen jokatzen. Merida, Linares, Motril, Mar Menor eta Roquetasen. Azken honetan zintzilikatu nituen botak, bulegoko lanean hasteko.

Nolako bizimodua egiten duzu Toledon? Hemengoarekiko oso ezberdina al da?

Egia esan Toledo oso herri erosoa da, ederra. Rakel nire emaztea eta Anne alaba oso pozik daude hirian, Toledoarrek ezin hobeto hartu gaituzte. Hiri bakoitzak bere erutina eta ohiturak ditu. Iparraldearekin alderatuta, egunerokoa oso ezberdina da hemen. Bizitzeko modu ezberdinak dira, baina liluragarriak biak.

Erlaziorik mantentzen al duzu Lasarte-Oriarekin?

Bai. Nire herria da, jaiolekua. Gainera haurtzaroa han igaro nuen, denbora asko daramat Lasarte-Oriatik at, baina faltan botatzen dut. Han dauzkat anaia, gurasoak, emaztearen familia eta lagunak. Ezin izaten dugu askotan joan, baina Gabonetan eta Udarako egun batzuetan eskapadatxo bat egiten saiatzen gara

Noizbait itzultzea pentsatu duzu?

Gauza bat da gustatuko litzaidakeena eta beste bat gerta daitekeena. Azkenean gure lanaren menpe gaude. Nire herrian eta nire txikitako taldean lan egitea gustatuko litzaidake, bi Liga irabazita historia egiten ikusi nuen talde handi horretan.

Klub handiago batera iristeko desiratik badizu?

Desira baino gehiago ilusioa daukat. Izugarri gustatzen zait nire lana eta dakidan era onenean egiten saiatzen naiz. Profesionalki hazten zaren heinean zure taldea kirol arloan ere hazten ari dela ikustea bezalako gauzarik ez dago.

Zein iritzi duzu futbolaren inguruan? Ez duzu uste futbola inguratzen duen guztia testuingurutik aterata dagoela?

Baliteke ala izatea, batez ere 1. Mailan. Gure mailetan dugun ordainsariarekin bizimodu normal bat aurrera ateatzea heldburutik ez dugu izaten.

Egia da talde handien fitxaketa eta mugimendu batzuk ulertezinak direla bizi dugun krisiarekin, baina egia da eurek kirol honi ere asko ematen diotela, mundu mailan hain ezagun egiten dutenak izar horiek izaten dira.

Aizea Morales-Kastresana Ikerlaria

"Minbizia gizakia sortu zenetik existitzen da"

Aizea Morales lasarteoriatarrak minbizia gainditzeko tratamenduak ikertzen ditu

Aizea Morales-Kastresana gaztea Iruñeako Unibertsitatean ikerlari lana egiten du, minbizia gainditzeko tratamenduak aztertzen ditu. Duela hilabete batzuk, Lasarte-Orian izan zen, Zabaleta auzoan hain zuzen ere, eta minbizia eta gaur egungo tratamenduei buruzko hitzaldia eskaini zuen. Gaixotasun honi eta tratamenduei buruz gehiago jakiteko harekin solasaldia izan dugu.

Nerea EIZAGIRRE

Zer da minbizia? Nola egiten du gure sistema inmunean?

Zelulen zatiketa inkontrolatua dela eta sortzen den gaixotasuna da.

Gizakiok existitu eta bizi ahal izateko beharrezkoa da gure gorputzeko zelulak zatitzea, zelula berriak sortzeko. Zatiketa hau oso ondo kontrolatua dago, baina deskontrolatzen denean etengabe erdibidetzen ari diren zelula multzo bat sor daiteke, hau da, tumore bat.

Sistema inmuneak gure gorputzean dauden "gauza txarrak" akatzen ditu: birusak, bakteriak... baita zelula tumoralak ere.

Sistema inmuneak zelula tumoralak akatu ezin dituenean, orduan minbizia dugula esaten dugu.

Zenbat minbizi klase daude?

Minbizi klase ugari dago, gure gorputzean dagoen zelula mota bakoitzeko, minbizi klase bat existitzen da.

Bestalde, 2 pertsonek nahiz eta minbizi klase bera eduki, beren zelula tumoralek eta sistema inmuneek ez dituzte zertan ezaugarri berberak izan behar eta minbiziak elkarren artean oso desberdinak izan daitezke.

Horregatik, gaur egungo terapiek ez dute berdin funtzionatzen pertsona desberdinengan.

Zer da metastasia?

Organo jakin batean sortu den tumorea gorputzeko beste atal batera hedatzen denean metastasia dagoela esaten dugu. Metastasia dagoenean, minbizia oso aurreratua dagoela da, agresiboagoa da eta baita zailagoa sendatzeko ere.

Zerk eragin dezake minbizia? Genetika, gaur egungo bizitza erritmoak, elikadurak...

Aditu batzuek diotenez, eboluzioaren truke ordaindu beharreko prezioa da. Izan ere, teoria neodarwinistaren arabera, ebolutzioa geneen mutazioetan oinarritzen da. Mutazio horiek gen berriak sortarazten dituzte, ebolutzionatzeko aukera emanez, baina minbizia ere eragin dezakete.

Minbizia gizakia sortu zenetik existitzen da, baina azken mendean minbizi kasu kopurua asko igo da eta nire iritziz horrek gure bizimoduarekin zerikusia du. Globalizazioak ondorioak ekarri ditu: mundu osoko janariak kontsumitzeko aukera, toki jakin bateko gaixotasunak munduan zehar hedatzea, industrializazioak naturara askatzen dituen toxikoak, janaria prozesatu eta saltzeko formato berriak, estresa... gure geneak ez daude kanpoko faktore berri guzti horietara ohituak eta nire iritziz, minbiziaren garapenarekin zerikusi handia izan dezakete.

Zertan datza zure ikerketak?

Nik minbizia gainditzeko tratamenduak ikertzen ditut. Laborategian egiten dut lan, zelulekin eta baita xaguekin ere. Minbizia eragiten diegu xaguei eta gero terapia desberdinak probatzen ditugu bi helbururekin: lehenengoa, xagua sendatzen den edo ez jakitea; eta bigarrena, nola sendatzen den jakitea, mekanismoa ezagutzea.

Zer da inmunoterapia?

Bere izenak dioen bezala, sistema inmunean oinarritzen den terapia da.

Pertsona batek minbizia duenean, bere sistema inmunea "tontotua" balego bezala dago. Inmunoterapiak sistema inmunea "esnatu" eta sendotzen du minbiziaren aurka joan dadin.

Helburua, gure sistema inmuneak zelula tumoralak akatzea da. Eta horretarako, sistema inmunea kontrolatzen duten proteinak "ikutzen" ditugu kontsola bateko botoiak balira bezala.

Ikerketa mailan dago orain-dik?

Duela 20 urte hasi zen inmunoterapia laborategietan lantzen eta orain dela pare bat urte lehenengo antigorputz inmunoestimulantea komercializatzen hasi zen, ipilimumab izenekoa.

Antigorputzak, lehen aipatu ditugun botoi horiek ikutzeko erabiltzen ditugun tresnak dira. Ipilimumab melanoma metastasikoa tratatzeko gomendatua dago baina laister beste minbizia motetarako ere erabiltzen hasiko da.

Horretaz gain, inmunoterapian oinarrituriko beste antigorputzak ere laster kaleratuko dira, ensaiu klinikoetan (minbizia duten gaixoekin) emaitza oso onak izan baititutze.

Aizea Morales-Kastresana laborategian laneau. A. MORALES-KASTRESANA

Gaur egun minbizia sendatzeko erabiltzen diren terapiekin zein desberdintasun ditu?

Pertsonalizatuagoa eta zehatzagoa dela esaten da, norberaren sistema inmunea bultzatzen baitu.

Sistema inmunea ejertzito inteligente bat da: badaki zein organotara joan eta zein zelula akatu, eta hori besterik ez du egingo, guk kanpotik instrukzioak eta armak ondo ematen badizkiogu (inmunoterapiarekin).

Radioterapia edo quimioterapiaren antzera bigarrengo mailako ondorioak izan ditzake? Edo ez du hainbesteko kalterik sortzen.

Kimioterapia bomba atomiko bat bezalakoa da: dena akatzen du, minbizia baita osasuntsu dauden zelulak ere.

Inmunoterapia zehatzagoa denez, bigarren mailako ondorioak ere desberdinak eta ahulagoak dira.

Hala eta guztiz ere, ondorioak badira, oraindik gizakion sistema inmunea guztiz ondo ezagutzen ez dugulako. Horregatik inmunoterapian ikertzen jarraitzea garrantzitsua da, bigarren mailako ondorio hauek gutxitzeko eta efektu antitumorala gehiago bultzatzeko.

Minbizia sendatzeko erabili daiteke bakarrik?

Ez, kontrakorako ere erabil daiteke.

Gaixotasun autoinmuneetan adibidez, minbiziaren kontrakoa gertatzen da: sistema inmunea oso aktibatua dago eta gure gorputzaren aurka doa. Kasu hauetan, inmunoterapia sistema inmunea lokartzeko erabil daiteke.

Oso efektiboa da eta dagoeneko badaude inmunoterapian oinarrituriko medikamentuak gaixotasun autoinmuneetarako.

Idoia Cuesta Artisaua

"Naturan aurkitzen dut inspirazioa"

Idoia Cuesta herritarrak urteak daramatza Galizian saskigintzan lanean

1992. urtetik bizi da Idoia Cuesta herritarra Galizian. Biologia ikasketak bukatu ondoren itsas biologia ikastera joan zen zehazki bere tesia egitera. Han urte batzuk egin zituen ikerkuntzan baina aukera asko ez zegoenez esparru horretan lanean jarraitzeko Biologiatik saskigintzara egin zuen salto, artisautzara. Mota guztietako saskiak eta hauek oinarri dituzten bestelako jantzi edota bitxiak egiten ditu material desberdinak erabiliz. Cibeles moda pasarela entzutetsuan ikusi ahal izan dira bere lanak besteak beste.

Maider AZURMENDI

Idoia Cuesta Biologia ikasketak bukatzeko joan zen Galiziara, bertan sartu zen artisautzaren munduan.

Idoia Cuesta ahal duen guztietan bueltatzen da Lasarte-Oriara. Zubi, opor, edozein aitzakiarekin familia eta lagunak ikustera etortzen da. 1992tik dago Galizian bizitzen, hain zuzen Lugoko Otero de Rey herrian bizi da "naturaz inguratuta".

Itsas biologian tesia egiteko asmotan joan zen eta ikerkuntzan denbora batean lan egin ondoren artisautzan sartu zen buru-belarri. Egun artisautza da bere ogibidea eta besteak beste, Cibeles pasarelan ikusi ahal izan dira bere lanak Sara Coleman diseinatzailearen esku. Zuntz naturalak erabiltzen ditu eta lehengaiaren garrantzia azpimarratzen du.

Nolatan iritsi zinen Galiziara?

Biologia ikasketak Leioan egin eta Itsas biologian doktoretza egiteko joan nintzen Galiziara. Tesia egin bitartean han ikerkuntzan lanean egoteko aukera izan nuen denbora batez baina ikusita ez zegoela esparru horretan jarraitzeko aukera askorik, hasi nintzen artisautzan formazioa jasotzen.

Zorte handia izan nuen urte horietan artisautza esparruan, ikastaro asko zeudelako Europak diruz lagunduta gehienak. Horiei esker lortu nuen lehenengo titulua edo, "Carta de Artesano" deitzen dena, ehule bezala. Telaretan ikasi nuen tapizak egiten etab.

Pieza bakoitzari beharrezkoa duen dedikazioa eskaini behar zaio.

Ondoren, ehungailu bat ikasle pisu batean edukitzea zaila zenez, honen tamainagatik batez ere, hasi nintzen saskigintzan. Ehun zuntzekin lan egin beharrean, zuntz begetalekin lan egitera pasa nintzen.

Eskulanak betidanik gustuko izan al dituzu?

Bai, txikitatik asko gustatu zaizkit eskulanak. Institutuan nengoenean nire asmoa Arte Ederrak ikastea zen baina irakasle eta gurasoek beste ikasketa batzuk hautatzeko konbentzitu ninduten nolabait.

Hala ere, ez naiz damutzen biologia ikasi izanaz. Ikasketa horiei esker ditudan ezagutza asko aplikatzen ditut egun egiten ditudan lanetan. Esaterako botanika esparruan ikasitakoa, landareen erabilera etab.

Itsasoarekin harremana ere badute nire lanek, bildumen izenetan edota formetan saiatzen naiz islatzen.

Batez ere saskigintzan aritzen zara. Zein material erabiltzen duzu hauek egiteko?

Mota guztietako zuntz begetalekin lan egiten dut *mimbrea*, anea, ezpata belarra... asko daude erabili daitezkeenak.

Hala ere, beti material berriak bilatzen saiatzen naiz ere. Berrerabilera lantzen dut kableak, plastikoak, papera birziklatzeko materialekin lan polita egiten ari naiz.

Zerk inspiratzen zaitu bilduma berriak osatzeko garaian?

Leihotik begiratu eta mendia ikusten dut, naturan asko inspiratzen naiz orokorrenan.

Itsasoa faltan botatzen dut, forma eta bildumen izenetan ere itsasoari erreferentzia egiten diet.

Zenbat denbora behar duzu pieza bakoitzeko?

Pieza eta eskaeraren arabera-koa da hori, ez dakit zehazki. Eskari bat bete behar dudanean batzuetan laguntza ere izaten dut, beste artisau batek laguntzen dit eskatutako kopuruei erantzun azkar xamarra eman ahal izateko.

Hala ere, beste garai batzuetan lasaiagoa da produkzioa eta aipatu behar dut, nire beste diru iturria ikastaroak direla.

Ikastaroak Galizian ematen dituzu?

Ikastaroak ez ditut soilik Galizian ematen, duela ez asko Santanderren izan nintzen, Madrilera joaten naiz..., batez ere saskigintza teknika tradizionalak erakusten ditut. Orain ere Marokora noa beka

Artisauarentzat garrantzitsua da kaleko azoketan egotea baina baita interneten eta azoka profesionaletan ere. Ahalik eta gehien ezagutzera eman behar da norberaren lana

Arropa eta akzesoriak egiteaz gain dekoraziorako lanak egiten ditu. Saski gorriak jaso zuen Errenteriko saria.

baten bitartez ikastaroak ematera.

Hamar urte daramatzat artisautzari dedikatuta. Lasarte-Oriara joaten naizenean esaten didate ea bertan ikastaroa noiz emango dudan.

Zure lan batzuk Cibeles moda pasarela entzutetsura iritsi dira.

Bai, hala da. Sala Coleman diseinatzailea jarri zen nirekin harremanetan. Berak nire lana ezagutzen zuen eta gustuko izateaz gain, bere diseinuen filosofiarekin bat zetozela zioen.

Horrela 2011 urtean akzesorio guztiak egin nituen berak aurkeztutako 2012 urterako udaberri eta uda sasoiko kolekziorako. Pieza horiek Madrilen eta Portugalen egindako erakusketetan erakutsi dira ondoren.

Nolakoa izan zen esperientzia?

Sormen produkzio berezia izan zen Sararekin egin nuena, elkarlana oso polita izan zen, bakoitzaren ikuspuntuak lantzea oso aberasgarria.

Nire lanak Cibelesen ikustea pauso handia izan zen niretzat.

Beste elkarlanik egin al duzue?

Bai, diseinatzailea 'International Woolmark Prize 2013-2014' pasarelan izan zen Italian eta finalista geratu zen. Honetarako ere berak diseinu bat prestatu zuen eta elkarrekin egin genuen artilezko pieza berezi bat.

Naturan inspiratu ginen, diseinu organikoa delakoa egiten du berak.

Landarei buruz, liburu bat kaleratu zenuen. Lehenengo aldia zen zuretzat?

"Guía de las plantas cesteables de Galicia" izeneko liburua bai. Tesi bat egiteko beka eskuratu eta ikerketa egin nuen Galiziako saskigintzan erabiltzen diren landareei buruz. Oraindik unibertsitatean nenbilen.

Oso lan polita izan zen eta orain beste artisau batzuekin lan etnografiko bat egitea pentsatzen ari gara. Jaso nahiko genituzke zaharrenen ahotatik eskulangintzako hainbat esparruetan nola lan egiten zen Galizian, zein tresna erabili etab.

Teknika tradizionalak galtzeko arriskuan egon baino lehen, hauek denak jaso nahi ditugu. Izan ere, nahiz eta egun nik egiten dudan bezala, saski ez hain tradizionalak egin, zuntzak erabiltzen ditudalako etab, formazio eta teknika tradizionalak ezagutzea beharrezkoak dira.

Herrian izan al zara inoiz zure lanak erakusten?

Lasarte-Orian ez baina Euskal Herrian bai, harremana daukat euskal artisau elkarteekin.

Errenterian izan nintzen azkenekoz baina Donostian, Getxon, Durangoko azokarekin batera egiten den artisau azokan egonda nago ere.

Krisia nabaritzen al da artisau munduan?

Bai, nabaritzen da beste esparru guztietan bezala. Artisau azokentzat ez da momentu ona.

Honen aurrean artisau gehienak ari gara ahalik eta gehien zabaltzen gure merkatua.

Batetik kaleko artisau azoketan egotea ona da, jendearekin harreman zuzena duzu etab.

Bestalde interneteko salmentak ahalbidetzen dizu munduko edozein txokotara zure lana bidaltzea, azkenean garrantzitsuena zure produktuak ezagutzera ematea da. Nik webgunea martxan daukat eta Internet bidez enkarguak jasotzen ditut.

Bestalde, feria profesionalak delakoak daude. Nik garrantzia berezia ematen diot adibidez berriki Parisen egon naizen nazioarteko feria profesionalari. Bertan dekorazio munduko enpresa pila bildu zen eta aipatu bezala kontaktuak egin eta lehen enkarguak jaso ditut. Tendentzia guztiak han aurkezten dira eta oso garrantzitsua da. Oraintxe Italia, Japonia eta Suitzara lanak bidaltzen nabil.

Errenteriako artisau azokan kalitateari saria jaso zenuen. Sari gehiago jaso al dituzu?

Bai eta oso pozik hartu nuen Errenterikoa. Orokorrean asko zaintzen dut materiala, lehengaia eta hori saritzea benetan eskertu nuen.

Urte hauetan sari ezberdinak jaso ditut bereziki berrikuntza mailakoak, hau da, diseinu edo teknika berritzaileak erabiltzeagatik, material hain ezberdinekin lan egiteagatik...

Halakoekin aitortuta ikusten dut nire lana eta gustura hartzen dira noski. Lanean jarraitzeko ilusioa mantentzen laguntzen dute eta hori momentu ez hain onetan asko eskertzen da.

Oraintxe zertan zabiltz?

Esan bezala Parisen lotutako enkarguak egiten ari naiz eta beste lan garrantzitsu bat egiten ari naiz ere. Azken honen inguruan ezin dut hitz egin baina oso pozik nago azken lanek izan duten arrakastarekin.

Idoiaren azken txano bildumako hainbat adibide.

autobusen TST zerbitzua
tsst
Eguberri jai zoriontsuak opa dizuegu!
Gure herriko autobusak
Azkarra, segurua eta erosoa
Tel.: 943 361740 • www.tsst.info

aldika
produktu bereziak
ahatekinak
ehizak eta hegaztiak
bakailao gezatua
onddoak
marinatuak
olagarroa
Eguberri on!
Industrialdea 19-20 • Tel.: 943 377089aldika@euskalnet.net

Elkartasun hitzak

Presoen lagunak taldeak ekimenak burutuko ditu Eguberrietan errezitaldia horietako bat

Taldeak Gabonetan hainbat ekimen burutuko ditu "elkartasun eguberriak" lemapean. Honen baitan azken urteetanohiko bihurtu den "Harresi guztien gainetik, sarraila guztien azpitik jasotako hitzak" errezitaldia egingo da urtarrilaren 3an. Taldeak Ibon Fernandez Iradi presoaren egoerak kezkatzen dituela azaldu dute bereziki.

Iazko errezitaldian ikusi ahal izan zen irudietako bat.

TXINTXARRI

Eguberrietan Presoen Lagunak taldeak gogoan izango ditu espetxean dauden herritarrak hainbat ekintzen bitartez. Abenduaren 27an, azken ostirala izanda, Maindirearen zintzilikatzea, 20:00etan elkarretaratzea eta "egun luzeak" kantuaren flash moba egingo da Okendo plazan.

Abenduaren 31ean astearte, 19:00etan, manifestazioa egingo da herriko kaleetan barrena Okendotik hasita. Ondoren, maindirearen jasotzea eta brindisa eigno dira.

Errezitaldia

Urtarrilaren 3an, ostirala 19:00etan, "Harresi guztien gainetik, sarraila guztien azpitik jasotako hitzak" errezitaldia izango da Manuel Lekuona kultur etxean.

Antolatzaileek kontatu dutenez, "kaleko zein errezitaldiko soinu-hiz-usainak jasoko dituen maindirea zabalduko da. Zergatik maindirea? Amagoiak auzoko maindireaz kontatzen duenarekin bat egin dugu".

Amagoia Mujikak Gara egunkarian argitaratutako testua hartu dute abiapuntu errezitaldia osatzeko. Honetan espetxera semeari maindire garbiak eramateak ama batentzat suposatzen duena kontatzen du.

Errezitaldia presoen lagun eta senideen artetik sortua da eta aurten laugarren urtea izango du. "Espetxean daudenen heritar, lagun, senideen testuekin osatu dugu aurtengoa ere".

Taldeak azpimarratzen du urteen poderioz lagun eta senideek espetxeetara egin dituzten eta egiten dituzten kilometroak. "Asko dira egin ditugunak. Atera kontuak, Pello Eskisabel Clairvaux, Aitzol Iriondo Bois D´Arcyn, Juankar Balerdi Huelvan, Rafa Diéz El Dueso Kantabrian, Xanti Arrospide Alacanten, Jabi Gallaga Kordoban, Ibon Fernandez Lannemezan-en," azpimarratu dute.

Ibonen egoera

Azken honen egoerak bereziki kezkatzen dituela diote. Ibon Fernandez esklerosi anizkoitza du eta espetxealdiak bere gaixotasuna areagotzen duela salatzen dute.

"Iboni, kondenaren etetearen eskubidea aplikatzea nahi dugu. Eritasuna atxilo-aldiarekin bateraezina den preso guztiek duten eskubidea delako. Ibonek pairatzen duen esklerosi anizkoitza, eritasun degeneratiboa da eta estresa faktore larrigarria da. Era presondegia estresa besterik ez da. Horregatik baldintzapeko askatasun eskaera egina dauka. Tratu gizatiarra jasotzea eskatzen dugu, eri larri egoera izan dadila gaientzen den kriterio bakarra eta epaileek hartuko duten erabakia ez dadila arrazoi politiko erepresiboetan oinarritu".

"Zoritxarrez oraindik bidaia luzeak egin behar ditugu. Egoeraren konponbidean dispertsioarekin amaitzeko pausoa ematen ez den bitartean".

Egunerokoa ezagutu

Errezitaldia komunikazio arileta dela diote.

"Euren eskutik jasotako idatzien bidez, zer dioten, nola dauden eta zer aurkitzen duten egunerokoan ezagutzeko aukera ematen du".

Aurten , Europatik jasotako aginduak direla eta, iaz baino preso gutxiago daudela diote. "Baina egia da, egoerak ez duela hobera egin. Datu orokorrak: Urriaren bukaeran: 587 presoetatik 8 baino ez zeuden Euskal Herrian (%2). Eta senide, lagunek bidaia luzeak eta arriskutsuak egiten jarraitzen dugu".

"Presoen giza eskubideak errespetatzea nahi genuke. Herri honen bakerako bidean pausoak emateko ausardia gehiago nahi genuke" bukatzen du taldeak bere balorazioa.

Herritarrak prestatutako ekintzetan parte hartzera gonbidatzen dituzte.

Gabon zorionduak opa dizkizugu !
Antonio Benito
Erregistratzeko kutxak eta pantaila taktila dutenak
Aralar plaza 1, behea
Tel.: 943 371313
20160 LASARTE-ORIA

EPEL
Gabon zorionduak opa dizkizugu!
TXERRI-BELARRI GUTIZIAZKOAK ETA OLAGARROA
AUKERA IZUGARRIA
-pintxoetan
-razioetan
-ogitartekoetan
-plater konbinatuetan
Goikale 1•Tel.: 943 362701•LASARTE-ORIA

• Luxuzko autokarrak.
• 22, 28 eta 31 plazako mikrobusak.
• 56 plazako autobusak.
• Autobus literadunak.
Ubilluts auzoa, 55. poligonoa 9-4 • 20140 ANDOAIN
Tel.: 943 305050 • Faxa: 943 305060
e-maila: info@autocaresurpa.com
web orria: www.autocaresurpa.com
URPA
Eguberri on!
AUTOBUSAK

Pizzeria Bar Jatetxea Ramny
Eguneko menua
Pizzak
Hanburgesak
Pintxoak
Etxean egindako masak
Oso ondo pasa Gabonetan!
Astebukaerako MENUAK erakargarriak prezio onean
Taldeentzako menuak
Kale Nagusia 71
20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 245565

INFORMATIKA
Ondo igaro Gabonetan!
Ezagutu itzazu gure eskaintzak, beste inora jo aurretik!
Okurre plaza 2, behea • Tel./Faxa: 943 360591
LASARTE-ORIA

MAiTE
ESTETIKAKO ARETOA
Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!
Foto depilazioa argi pultsatuarekin
• Era ezberdinetako depilazioak
• Aurpegiko tratamenduak
• Gorputzeko tratamenduak
• Makillajeak
• Beste hainbat zerbitzu
Eguberri on!
Prezio berriak fotodepilazioan
ETORRI eta GALDETI!
Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 • Lasarte-Oria

INPRENTA ERROTULUAK
Asko disfrutatu Gabonetan
BIZKER

TINHOA TABERNA
Oso ondo pasa Eguberri jaietan!
Razioak, Pintxoak ...
Elorri dastatzera!
Kale Nagusia 46 • Tel.: 943 370885

Eguberri on!
Etorri gure jaki goxoak probatzera
Ola kalea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 362768

Eguberri eta Urteberri on!
Riojanos Erretegia
Afariak, bazkariak, pintxoak, ...
Uistin kalea 13 • Tel.: 943 362720 • LASARTE-ORIA

Fernández ehunak
Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!
Oso ondo pasa Gabonetan!
Kale Nagusia 2 • Tel.: 943 361607 • LASARTE-ORIA

ML ILEAPAINDEGI MIXTOA MARIA LUISA
Oso ondo pasa Gabonetan eta Urte berri on!
Pablo Mutiozabal 9 behea
Tel.: 943 370980

ABREU
Ondo igaro gabon jaietan!
Geltoki 2 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 365846



Apainketari garrantzia ematen diote mota guztietako dendek herrian.

Apaingarri dotorea eta txistorra lehortzeko primerako lekua.

Apaintzea beharrezkoa da?

Erakusleihoak apaindu behar diren galdetu dugu

Gabonak iristearekin batera, herriko kaleek beste giro bat izan ohi dute. Argiak jende askok faltan bota ditu aurreko urteetan eta aurten gehiago daude Aterpeak merkatari eta ostalarien elkarteak gastuaren parte bat bere gain hartu duelako. Aldi berean hainbat denda eta tabernek euren ikzura aldatzen dute Gabon giroan mulgildu nahirik. Bezeroei begira egiten den eta arrakasta duen galdetu nahi izan dugu.

Apaingarriak jarri dituzten hainbat dendetan galdetu dugu hauek duten garrantziaz. Ziur ez dakite eragina duen edo ez eroskетan baina bezeroei eta herritarrei gustatzen zaiela argi dute denek.

Ramon Ormazabal

"Eskaparatea urte osoan zaindu behar da ez orain, Gabonetan bakarrik. Herritarrek ikusten duten lehenengo gauza da eta polita eta erakargarria bada dendan sartzeko aukera gehiago daudela uste dut. Askotan erakusleihoak duen garrantziaz ahazten garela uste dut. Kaleetan argiak egotea funtsezkoa da ere. Aterpeatik ahalegin berezia egin da aurten Gabonetako argi gehiago jartzeko eta horretaz gain alfonbra gorri dotore bat eta koro bat banatu da bazkide guztien artean. Apaingarriek giro berezia sortzen dute eta giro horrek uste dut laguntzen duela kontsumitzeko orduan".

Mikel Arregi

"Denda ohituraz apaintzen dugu, beti egin izan dugu eta gustatzen zaigu zerbait desberdina, polita jartzea Gabonetan. Bezeroek beti esaten dute apaingarriei buruz zerbait beraz pentsatzen dut beraiek ere gustura hartzen dituztela halakoak. Egia da jende asko geratzen dela begira eta akaso intereseko zerbait ikusten badute sartzen direla. Salmentan apaingarriek eragin zuzena duten ordea ez dakit".

Ana eta Naroa

Patxi Larrañagan gogotsu hartzen dute tartea denda guztia apaintzeko "urtero bazkari bat egiten dugu San Nikolas egunean eta harategia apaintzeko eguna izaten da hori. Aurten gauza gehiago egin nahi genituen, musika jarri dugu kanpoan eta denda barruan hainbat panpin eta apaingarri. Erakusleihoa txistorraz beteta dugu. Polita egiten du eta guretzako funtzio garrantzitsu bat betetzen du, lehortzeko daude hor zintzilik. Ia 2.000 kg txistorra egiten ditugu eta ez dugu lekurik. Bizi dugun garaian alaitasun pixkat behar dugula uste dut eta bezeroei gustatzen zaie".

Yolanda Alba

"Garrantzitsua da apaintzea, jendea geldituzen da begira eta bide batez duzun arropa ikusten du. Dendariak esfortzu txiki bat egin behar duela uste dut. Nik aurten hainbat panpin berri erosi ditut eta jartzen dudana zaintzea gustatzen zait. Bizi dugun krisi egoeran Gabon giro honek behintzat poztasuna ematen duela dirudi, kaleak, dendak, desberdin ikusten dituzu... behar dugu egunerokotasunetik pixkat atera".

Arrakasta handia izan dute Errigorako saskiek

8.000 saskitik gora banatu dira Euskal Herrian; Lasarte-Orian 5.000 euro batu dira

Lasarte-Oriako hainbat elkartek bat egin zuten azaroan Errigora ekimenarekin. Nafarroako Hegoaldeko euskalgintza laguntzeko helburua du eta horretarako, bertako produktu saskiak saltzen ditu ekimenak. Errigorak jakinarazi duenez, ehun bat izan dira gurean banatu direnak. Era honetara, Lasarte-Oriak bere aletxoa jarri du Nafarroako Hegoaldeko euskalgintzak aurrera egin dezan.

Errigora ekimeneko kideek ostegunean Arroitzen eskaini zuten prentsaurrekoan.

Errigoraren ekimenez eta AEK, Ikastolen Elkartea, Sortzen eta Zazpiak Bat-en babesaz, "Nafar Hegoaldeko uzta; euskarari puzka" kanpaina jarri zuten martxan urriaren 28an eta azaroaren 14an bukatu zen. Nafarroa Hegoaldeko euskalgintzari laguntzeko Nafar Hegoaldeko produktuan dituen saskia jarri zuten salgai.

Asteazkenean, Arroitzen eskainitako prentsaurrekoan, Errigora ekimeneko kideek kanpainaren balorazioa egin zuten. "Esloganak berak dioenari jarraituz, sekulako puzkada egin dugu denon artean. Egin zitezkeen aurreikuspen onenak ere gainditu ditugu".

Agerraldian azaldu zuten legez, 8.000 saskitik gora banatu dira Euskal Herriko herrialde guztietan zehar. Era honetara, batetik Nafar hegoaldeko hamaika produktu etxeetan dastatzea eta bestetik, 112.000 euro Nafar hegoaldeko euskalgintzarako batzea lortu da.

Bildutako diru hau 3 proiektuetara bideratuko da, Lodosako ikastola, "Euskaraz bizi eta ikasi" herri ekimena eta Erriberako AEK-ra.

Auzolana

Errigorako kideek kanpaina honetan egin den auzolana azpimarratu zuten, "urria eta azaroa bitartean bizi bizirik egon den kanpaina hau, auzolan ariketa ederra izan da; ahozapore onarekin uzten gaituzten horietakoa".

Izan ere, kanpainak 7 probintzietan izan du hedapena eta ikastola, eskola eta euskaltegiez gain taberna zein denda, elkarte, enpresa, unibertsitate, udaletxe... izan dira erakusgai saskiak. "Kalean mahai bat jarrita kanpaina egin duenik ere izan da. Gabon saski bihurtu dute lantoki batzuetan eta eskari ederrak osatu," jakin arazi zuten.

Horregatik, proiektu honetan parte hartu duten herritar guztiei eskerrak eman eta guztiak zoriondu nahi izan zituzten.

Errigora Lasarte-Orian

Lasarte-Orian ere, Nafar Hegoaldeko euskalgintzari lagundu nahi izan diote hainbat elkartek AEK Muntteri euskaltegian, Landaberri BHIn eta Ttakunen, baita enpresa pribatu batek ere.

Guztira 5.000 bat euro izan dira gure herrian bildu eta Nafarrora bidali direnak

Udaberrian ere aukera

Ez da azarokoa saskiak erosi ahalko den garai bakarra izango. ERRIGORA ekimenak jakitera eman duenez, udaberrian bigarren sorta erosi ahalko da garaiko produktuekin.

"Hau, xumeagoa izango da ziurrenik, zertxobait desberdina egin berri dugun kanpainarekin alderatuta; baina helburu ea ilusio berberekin landuko ditugu, hori ziur!," adierazi zuten ERRIGORAko kideek.

Zozketa antolatu dugu, parte hartu!

TXINTXARRIK Urtz, Kaotiko eta herriko pailazoen azken diskoak zozketatzen ditu

Eguberri hauetan TXINTXARRI-k irakurleen fideltasuna saritu nahi du. Horretarako prest ditugu Urtz taldearen azken diskoa, "Astiro", Kaotikoren "E.H. Calling" eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots herriko pailazoen "Bizipoza" zuen artean banatzeko. Egin behar duzuen bakarra TXINTXARRI-rekin argazki bat atera eta bidaltzea da. Argazki originalenek izango dute saria. Animatu eta parte hartu!

20.ikasturtea da TXINTXARRI-rentzat aurtengoa, 1993ko urriaren 1ean kaleratu zen lehenengoz.

TXINTXARRI-k urriaren 1ean 20 urte bete zituen. Denbora azkar pasa dela iruditukо zaizue askori baina 1993. urte hartatik 20 urte dira jada zuen etxeetan lehenengo alea, orduan hamabostekaria jaso zenutenetik.

Ibilbide luze honetan bidelagun izan zaituztegu eta opariak banatzeko garai honetan, guk ere gure aletxoa, txikia bada ere, jarri nahi dugu. Eskerrak emateko aitzakia bada ere, urte guzti hauetan jasotako babes eta laguntzagatik.

Zuen artean banatzeko ditugu Urtz taldearen azken diskoa, "Astiro", Kaotikoren "E.H. Calling" eta Pirritx, Porrotx eta Marimotots herriko pailazoen "Bizipoza".

Hiru diskoen zozketa egin nahi dugu eta honetan parte hartzeko, zuen argazki bat bidali beharko duzue TXINTXARRI-rekin. Egungo mugikorrekin oso erraza izango zaizue, ez du kalitate bikaina izan behar argazkiak beraz alde horretatik ez arduratu behintzat.

Egun hauetan gainera familia eta lagunekin elkartu ohi gara beraz, ziur argazki politak egiteko aukera bat baino gehiago izango duzuela. Hori bai, geroz eta argazki originalagoa egin, orduan eta aukera gehiago izango dituzue diskoetako bat eskuratzeko.

Hasi bidaltzen

Argazkiak gaurtik bidali ahal izango dituzue eta horretarako bide desberdinak jarri ditugu eskura, WhatsApp mezua 688 683 510 zenbakira bidali dezakezue, Twitter @ *txintxa-rrri* edota Facebookeko orriaren bidez egin dezakezue. Gogoratu argazkiarekin batera kontakturako izen eta telefono edo email bat utzi beharko duzuela.

Datu pertsonalak direla eta, hauek emateko hobe WhatsApp edota Twitterreko mezu pribatua erabiltzen baduzue.

Datozen egunetan argazki guztiak jasoko dira eta urtarrilaren 10eko alean sarituen izenak argitara emango ditugu.

Jasotako argazki guztiekin album bat osatu eta interneten ikusgai jarriko dira.

Animatu eta parte hartu etxeko txikiekin, aitona-amonekin, guraso, lehengusu, izeba-osaba, koadrilan, banaka...

Agenda

Lasarte-Oria

Zinea

Manuel Lekuona kultur-etxea
Ostegunа 26, 17:00etan
Ostegun zirena atalaren barruan, "De óxido y hueso" film frantsesa eskainiko da, Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 4,65 euro; internetez, 4,24 euro. Gaztelaniaz.
Igandea 29, 19:30ean
Helduen zinea atalaren barruan, "De óxido y hueso" film frantsesa eskainiko da, Okendo Zinema taldearen eskutik. Sarrerak leihatilan, 5,85 euro; internetez, 5,30 euro.

Elebeltz Topagunea
Ostegunа 2
"No" filmaren emanaldia izango da.

Olentzero

Zabaleta Auzoa
Asteartea 24, 10:00etan
Zabaleta Auzoko lagunak auzo eta inguruko kaleak alaituko ditutte haien kantuekin.

Okendo Plaza
Asteartea 24, 11:00etan
Landaberri ikastolako ikasle eta guraso Olentzerorekin atera eta Gabonetako kantak eskainiko ditutte herriko erdigunean.

Zumaburu ikastetxeko lokala
Asteartea 24, 15:00etan
Erketz EDT-ko lagunak baserriz baserri joango dira Eguberrietako doinuak herritarrei eramaten.

Atsobakar auzoa
Asteartea 24, 17:00etan
Alboka Abesbatzak herriko kaleak girotuko ditu Eguberrietako kantak eskainiaz.

Loadi-Barren-eko Pilotalekua
Asteartea 24, 17:00etan
Olentzero eta Mari Domingiri harrera egingo zaie eta ondoren, Dinbi Danba batukada, Amaiur triki eta pandero eskola, Kaudrillateg eta Gazte klubeko gaztetxoen laguntzaz kalejira egingo da.

Okendo Plaza
Astaertea 24, 17:30ean
Porrotx, Amaiur trikiti eta pandero eskolako lagunek, Alboka abesbatzeko lagunek, Dinbi Banda batukadak ongi etorria egingo diote Olentzerori.
Astaertea 24, 18:15ean
Olentzerok eta Xixukok haurren eskutitzak jasoko ditutze.

Aniztasun astea

Okendo Plaza
Astelehena 23, 11:00etatik 14:00etara
Eguberrietako haur parkeko gazteen gunea Aniztasun astearen karpan izango da.
Astelehena 23, 16:30ean
Ostadar SKT-ko lagunek euskal jolasak antolatuko ditutze.
Astelehena 23, 19:30ean
Bideo emanaldia, Lasarte-Oriako aniztasunari buruzko "bideo parte hartzailea" eta Kultur arteko Topaketetakoa bideoa.
Osteguna 26, Larunbata 28, goiza
Gastrokulturala ekitaldia. Haur eta helduentzako nazioarteko sukaldaritza ailerrak.
Osteguna 26, 18:00etatik 21:00etara
Jatorri eta kultura ezberdinetako lasarteoriatarren erakustaldi gastronomikoa: Kolonbia, Nikaragua, Bulgaria, Errumania, Ekuador.....
Larunbata 28, 12:00etatik 14:00etara
Eliza ebanjelikoko kideen kantu, musika eta kultura emankizuna.
Larunbata 28, 16:00etatik 01:00etara
Xpressionk-ek antolatutako, Munduko hotsak jaialdia. ENEKORA, Iban Nikolai, Banda Western Sahara, Bossa Collective, Whawha Bugaband, All Nation Reggae Band eta herriko Makulu Ken taldeen saioaz gozatzeko aukera.
Larunbata 28, 20:00etan
Aniztasunaren ekitaldia egingo da eta Kukuka dantza taldeak soka dantza eskainiko du.

Eguberrietako Haur parkea

Kirol Gunea
Abenduaren 21tik 31ra
Herriko gaztetxoek primeran pasako dute. Sarrera doakoa da haurrentzat. Helduek euro bat.

Musika

Zulo aretoa
Asteartea 24, 00:00etan
Julen-k & Txoni dj-en musika electronikoaz gozatzeko saioa izango da.
Ostirala 27, 21:30ean
Bravo Fisher!-en emanaldia izango da eta ostean, Costas-ek elektronika saioa eskainiko du.
Larunbata 28, 22:30ean
"Putxero Sonidero" eta "A Toda Madre"-k Cumbia Bass saioa eskainiko dute.
Astelehena 30, 22:30ean
Italiako "The Snookys" taldearen punk-rock estiloaz gozatzeko aukera.

Elebeltz Topagunea
Larunbata 28, 20:30etik aurrera
"Fabrimusikala" jaialdia antolatu da. "Cohen", "Can't Explain", "Gabezia", "Yaw" eta "More Jaia" taldeen saioaz gozatzeko aukera izango da. Ostean, DJ-ak izango dira.

Abend Kafe-Antzokia
Larunbata 4, 23:00etan
"Los Reyes del Metal" II. jailadia izango da. Honetan, "Tamerlaÿn", "Insanity" eta "Izu Nauk" taldeen emanaldia izango da.

Ikasketa Feministak

Elebeltz Topagunea
Astelehena 23, 18:00etatik 21:00etara
"Feminismoa, subjektua eta modernitatea" gaia jorratuko da.
Ostirala 27, 18:00etatik 21:00etara
"Mugimendu feministaren historia" aztertuko da.
Astelehena 30, 18:00etatik 21:00etara
Gaia "Teoria feminista postestrukturalak" izango da.
Ostirala 3, 18:00etatik 21:00etara
"Queer" teorikoa aztertuko da. Ostean, Kontu Kantoiko Bea Egizabalek ipuin kontaketa egingo du eta afaria izango da. Afal ostean, Eneritz Furyak kantaldia eskainiko du.

Ur festa

Kiroldegiko igerilekua
Osteguna 26, 10:00etan
2001 eta 2008 urte artean jaiotako gaztetxoek Ur festa paregabeaz gozatu ahalko dute. Olagarro maila izan behar da.



Elkartasun Eguberriak

Okendo Plaza
Ostirala 27, 21:30ean
Maindirearen zintzilikatzea, elkarretaratzea eta "egun luzeak" kantuaren flash moba egingo da.
Astaertea 31, 19:00etan
Manifestazioa egingo da herriko kaleetan barrena. Ondoren, maindirearen jasotzea eta brindisa.

Manuel Lekuona kultur-etxea
Ostirala 3, 19:30ean
"Harresi guztien gainetik" preso eta iheslarien hitzekin antolatutako errezitaldia egingo da.

Antzerkia

Manuel Lekuona kultur-etxea
Larunbata 28, 20:00etan
EPAko ikasle ohien Lan eta Lan antzerki taldeak, "Navidad en familia" antzezlana eskainiko du. Sarrera leihatilan, 3,50 euro; internet bidez, 3,24 euro.

Igandea 29, 17:00etan
Glu glu produkzioak "Hansel eta Gretel" haur antzerkia eskainiko du. Sarrera, 3,70 euro; internetetik, 3,24 euro.

Jaia

San Roke ermitan
Astelehena 31, 10:00etatik aurrera
Ostadarreko Mendi sailak eta Tkakunek antolatuta urteari amaiera emateko Buruntza mendira igotzen diren lagunentzako jaia antolatu da. Txistorra, ardoa eta musika izango dira.

Erakusketa

Jalgi Kafe-Antzokia
Abendu amaiera arte
"Santo Tomas" eta "Olentzero" jaialdietako argazki zaharren erakusketa izango da ikusgai.

Elebeltz Topagunea
Astelehena 23-Ostirala 3, 17:00etatik aurrera
"Elebeltz, urtebete utzita zegoena berreskuratzen" argazki erakusketa ikusgai izango da.

Sari banaketa

Danok Kide elkartea
Igandea 29, 12:00ean
Danok Kide elkarteak Jaiotzen XX. Lehiaketako sari banaketa ekitaldia egingo du.

Errege Magoak

Ama Brigitarren komentua
Igandea 5, 12:00etatik 13:00etara
MEGABA elkarteak antolatuta Errege Magoen postontziak egongo dira eskutitzak uzteko.
Igandea 5, 16:15etik 17:45era
Errege Magoen harrera egingo da eta haurrek haien eskutitzak emateko aukera izango dute.

Oria Auzoa
Igandea 5, 18:30ean
Errege Magoen kabalgata. Herriko kaleetatik gozokiak botako ditutte. Okendo plazara iristean, Marrazki lehiaketako sari banaketa egingo dute.

Herritarren txokoa

Lasarte-Usurbil Institutuko zozketa
Lasarte-Usurbil Institutuan egindako saskiaren zozketaren bartel irabazlea, 3733 zenbakia da. Onuraduna Institutura hurbildu behar da saria jasotzeko.

Odol ateratzea
Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo ditutze Osasun Zentroan abenduaren 30ean, arratsaldeko 17:30etik 20:30era. Anima zaitezte, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

Maria Auxiliadoraren ohorezko meza
Maria Auxiliadoraren ohorezko meza Zumaburuko Arantzazuko Amaren eliza Maria Auxiliadoraren meza opatuko da gaur abenduaren 23an, ostirala, arratsaldeko 17:00etan.

Kiroldegiko ordutegia
Lasarte-Oriako Kirol zerbitzuak jakinarazten du, 2013 eta 2014 urteko egutegiaren arabera, abenduaren 24, 25 eta 31ean eta urtarrilaren 1ean kirol instalakuntza guztiak itxita egongo direla.

Gure esku dago taldea osatzen
Elkarlanaren ildotik urrats berri eta sakonak egiteko unea dela deritzogu erabakitzeko eskubidaren alde daudenek.
Horregatik, GURE ESKU DAGO ekimenaren aldeko lan taldetxoa osatzen daude. Bilerak ostegunetan egingo dituzte Udaletxe zaharrean, iluntzeko 21:30tatik 23:00etara. Ateak irekiak egongo dira taldera sartzeko gogoa duen edonorentzat!

Galdutako gauzak
Udaltzainek jakitera eman dutenez, gauza hauek daude jasota, urrezko pultsera bat, hiru betaurreko graduatu eta bi txirrinda.
Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar ditutze.
Horietakoren bat ikusteko interesa duten pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, goizean, 09:00etatik 13:00era.

Sorgin Jaien batzarra
Sorgin Jaien batzarra egingo da gaur abenduaren 23 19:00etan Gaztelekuan. Honetara etortzeko deia egiten da.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko: Geltoki kalea, 4 943 366858
txintxarri@txintxarri.info



Zorion agurrak

Pili
Zorionak erregina. Oso ondo pasa zure egunean. Disfrutatu eta 10000 mx gure partetik.

Judith
Mila zorion printzesa!! Ondo pasa zure zortzigarren urtebetetze egunean gurasoen partetik.

Jon
Zorionak guraso eta familiaren partetik! Bost muxu handi eta ondo pasa zure eguna.

Unax eta Patxi
Zorionak piratak ondo pasa eta mila muxu familiaren partetik.

Arkaitz
Zorionak! Oso ongi pasa zure egunean guraso eta osaba Rafaelen partetik.

Unai eta Gorka
Zorionak bioi belarrietatik tiraldi eta muxuak aitona Alfredo eta amona Pepiren partetik. Muxu pila!!!

Maddi
Zorionak Tomaxi, zazpi muxu handi zure familiaren partetik!

Araitz
Zorionak etxeko printzesa!!! Txokolatezko 6 muxu erraldoi zure amiliaren partetik. Disfrutatu zure egunean.

Libe
Zorionak etxeko goxozale! Natazko 6 muxu goxo zuretzat familiaren partetik! Pilo bat maite zaitugu!

Nerea
Zorionak bihotza!! 4 muxu handi aitatxo, amatxo eta Eneritzen partetik!

Markel
Zorionaaaak maitia zure 1 urtean! Asko maite zaitugu. Guraso eta familia guztiaren patetik Muuuuak!

Alazne
Zorionak zure laugarren urtebetetzean. Asko maite zaitugu bihotza amoñi eta Titoren partetik.

Oier
Zorionak Txapeldun!! 8 Muxu handi etxekoen partetik!!

Nikola
Zorionak pottolo! Muxu haundi bat aitatxo eta amatxoren partez. Ondo pasa zure hirugarren urtebetetzean.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58,
txintxarri@txintxarri.info **edo** *txintxarri.info* **web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.**



Egun alai eta ederrak egun txarren atzetik etortzen dira.
Egun alaitzu orrek dirdirazka datozte.
Alaitu zaitezte euzkotarrak.
Jaso biotzak ta Gabon ta Gabon zar zoriontzuak igaro.

Lehendakari Agirre, 1938

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON

aldaz
hortz klinika
Aldaz hortz klinikak
jai zoriontsuak eta
Urteberri on
2014
opa dizue
RPS124/10